

Demokraziari buruzko galdetegia: *arrazoiketa* bat

Andoni Eizagirre
Asier Baztan

2024

Autoreak

**Andoni Eizagirre, Mondragon Unibertsitatea.
Asier Baztan, Mondragon Unibertsitatea.**

ISBN

978-84-09-65282-2

CC BY-NC

-
- 00 **Sarrera** 05
-
- 01 **Abiapuntuko *pleanteamendu***
orokorra 06
-
- 02 *Ulermenen* **bilaketa** 08
-
- 03 **Definizioaren *funtsezko***
edukia 09
-
- 04 **Jarrerazko *dimentsioak*** 11
-
- 05 *Demokraziaren* **balioa** 14
-
- 06 **Ordezkaritza *politikoaren***
auzia 18
-
- 07 **Demokraziari buruzko**
kontzepzioak 22
-
- 08 **ERANSKINA**
Galderak eta adierazleak 26
-



Hitzaurrea

Arantzazulab demokraziaren berrikuntzarako laborategia da. Horretarako gobernantzaren eraldaketa sustatzen du, eta laborategiaren helburua lankidetzazko gobernantzan sakontzea eta berau hedatzea da, herritarrek ahalduzko, herri politiketan lankidetzazko gobernantza sustatzeko eta demokrazian sakontzeko. Laborategiaren azken helburua ere bada lankidetzarako kultura gizartean hedatzea, herritarren elkargune eta ikaste aktiboko topagune bihurtzea, eta herritarrek agenda publikoan duten inplikazioa eta partehartzea areagotzeko tresna berriak, hurbilpen eraldatzaileak eta ezagutza eskaintzea. Ekimen ezberdinak bertako zein nazioarteko askotariko eragileekin lankidetzak sareak sustatuz garatzen ditu, berrikuntza sustatuz, eta hausnarketa, ikerketa eta esperimentazioaren bidez. Laborategiaren egitekoaren oinarrian daude: berrikuntza eta ikuspegi eraldatzaileak txertatzea, lankidetzak sustatzea, nazioarteko ezagutza aurreratuekin konektatzea eta gure balio eta kulturaren errotuta lan egitea. Arantzazulab-ek, Euskal demokraziaren berrikuntzaren epizentroan kokatu nahi du, erakundearen eta herritarren arteko harreman berriak irudikatuz eta gauzatuz.

Arantzazulab-ek sustatutako Ikerketa Elkargunea unibertsitate ezberdinekin ikerketa kolaborazioan egiteko espazio berritzailea da. Unibertsitate bakoitzaren banakako ikerketaren emaitzak batzera mugatu beharrean, Ikerketa Elkarguneak balio erantsia eskaintzen du: batetik, lankidetzazko hausnarketa eta ikerketa gune hau unibertsitate ezberdinekin batera diseinatu, aktibatu eta kudeatzen da; bestetik, laborategiaren esparruan ezagutza garatzeko oinarrizko ikerketa eta hausnarketa aurreratua sustatzen dira, ikerketa proiektu kolektiboak garatuz, beti ere unibertsitatearen arteko lankidetzan. Elkargunearen izaerari lotuta, beste espazio eta foroetan gertatzen ez diren hausnarketak egitea eta ideia berriak sustatzea bilatzen da; jakintza arlo ezberdinetako ikertzaileak batuko dituen espazioa da. Hauek dira espazio honetan parte hartzen duten unibertsitate nagusiak: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. Ikerketa lanak bi eremu nagusitan jorratzen ari dira: Demokrazia eta Lankidetzazko Gobernantza.

Azken urteotan Ikerketa-Elkargunearen gai nagusietako bat demokrazia izan da. Demokraziaren sasoia, kalitatea eta babes soziala ari gara ikertzen, gureari arreta ipinita, baina ikuspuntu konparatuari ere kontu eginda. Hori dela eta, hiru unibertsitateetako ikertzaileek batera eta elkarrekin arituta, besteak beste, 2023ko otsailaren 22 eta martxoaren 24a bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde bakoitzerako lagin esanguratsu bati elkarrizketa egiteko galdera-sorta egituratu eta itxia erabili zen. 18 urte edo gehiagoko biztanleriari zuzendua, lagina honela banatu zen: 1.022 pertsona Bizkaian, 661 Gipuzkoan, eta 490 Araban; beraz, 2.173 pertsona elkarrizketatu ziren guztira. Elkarrizketatuen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, udalerraren tamainaren arabera estratu proportzionalak erabiliz. Ondoren pertsonak sexuaren eta adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratu ziren.

Txosten honek galdetegiaren berri ematen digu. Andoni Eizagirre eta Asier Baztan ikertzaileek galdetegia nola eta zergatik diseinatu zuten azaltzen digute. Demokraziari buruzko ulermen ezberdinen berri eman, gaur egungo hainbat bihurtze ezagutarazi, eta galdetegiaren izaera, zentzua eta helburua esplikatzeko dizkigute. Bi ikertzaileek eskaintutako azalpena lagungarria da galdetegia ulertzeko bezainbat galderari neurria hartu eta galderen inportantzia ere jabetu gaitzen.

00 — Sarrera

2023ko udaberrian, «Demokraziari buruzko ulermenak gurean» galdetegi-ko datu orokorrak aurkeztu eta argitaratu genituen¹. Galdetegiaren helburu nagusia demokraziari buruzko ikuspegi, balorazio eta iritziak ezagutzea izan zen. Lan honetan, atzera egin, eta inkestako galderak, adierazleak eta itemak esplikatatu eta arrazoitzeko asmoa dugu.



«Demokraziari buruzko ulermenak gurean» inkestako galdera, adierazle eta itemak arrazoituko dira eta horretarako demokraziaren gaineko eztabaidak bereizi eta jasoko dira.

Azalpena modu honetan egituratuko dugu. Lehenik eta behin, galdetegiaren premiari eta gure abiapuntuko planteamenduari buruzko argibideak emango ditugu; oinarritzkoa da galdetegiaren izaera, zentzua eta helburua zein diren argitzea (1-3 atalak). Jarraian, demokraziari buruzko galdetegi estandarretan arreta ipini, eta ikaskuntza garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu. Izan ere, nazioarteko ikerketa konparatuak, urte luzeetako lanetan oinarrituta, balioztatuak ditu hainbat kontzeptu, galdera eta emaitza. Demokraziari buruzko galdetegia diseinatu nahi izan dugun heinean, gaiari buruzko aurrekari historiko eta konparatuek aukera eman digute, galderak eta adierazleak identifikatzeko ez ezik, galdera eta adierazleen izaera ulertu eta justifikatzeko ere. Alde horretatik, demokraziari buruzko jarrerazko hiru dimentsio kontzeptual eta enpiriko bereizteko moduan izango gara (4. atala).

¹ ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean. Oñati:
ArantzazuLab.



Horren ondoren, demokrazia zerk bereizten duen galdetu (edo zergatik demokrazia galdetu), eta, interpretazio teoriko eta konbentzionalen eskutik, balio intrintsekoak, prozedurazkoak eta instrumentalak desberdintzea lortuko dugu (5. atala). Horrek, bide batez, ordezkari politikoari buruzko hainbat ñabardura kontzeptual eta metodologiko egiteko aukera irekiko digu (6. atala). Arrazoiak konbentzional horiek berregin eta osatzeko asmoz, ikerketa enpiriko berriagoi ere arreta ipiniko diegu; hurbilketa kualitatiboek aukera ematen dute ikuspegi tradizionalen mugak planteatu eta eztabaida berriak irekitzeko (7. atala).

Zalantzarik gabe, gure xedea demokraziaren ulermenei buruzko galdetegi diseinatzea izaki, kontu egin beharko diegu, ezinbestean, ikuspegi eta balio ezberdin horiei. Azken atalean, bukatzeko, hiru eztabaida nagusiren bueltan multzokatu, arrazoiu eta justifikatuko ditugu inkestarako hautaturiko galderak eta adierazleak (8. atala).

Galdetegiaren abiapuntuko jakin-mina gurean demokraziari buruz egon litekeen kontzepzioak ezagutaraztea izan da, edo behintzat horren premia nabarmentzea. Gerta liteke demokrazia ulertzeko modu ezberdinak egotea. Hori hala izatera, eztabaida publikoaren izaera eta kalitatea beste era batera interpretatzeko beharra ere azaleratzen zaigu, jakina. Hipotesi horiek datuak interpretatzerakoan arakatuko ditugu, ordea.

Abiapuntuko planteamendu orokorra

— 01

Galdetegi diseinatzeko premia, edo demokraziari buruzko ulermen sozialak ezagutzeko garrantzia, ikuspuntu teoriko, politiko eta soziologiko ezberdinetatik arrazoiu daiteke. Gure erabakiaren berri emateko, bi hurbilketa labur-labur aurkeztu eta alderatuko ditugu.

Gaur egungo kezka eta zalantzetatik ekin diogu galdetegi diseinatzen has-teko galderak egiteari. Hauek dira gure abiapuntuko galdera orokor batzuk: Zertan datza demokrazia? Zein da, gaur egunean, demokraziaren sasoia, kalitatea eta babes soziala? Zergatik diogu demokrazia krisian dagoela? Nola indartu daiteke demokrazia? Zein izan daitezke balio demokratikoak indartzeko gakoak? Nabarmena da galdera horiek izaera eta zentzu ezberdinekoak direla, baina demokraziari buruzko egonezin batzuen berri emateko behintzat balio digute.

Demokraziari buruzko interpretazio teorikoak eta analisi politikoak, sarri askotan, ikuspuntu batekin konprometituta, balio etikoetan oinarrituta, edota aspirazio eta ipar batzuetatik abiatuta egiten dira. Alde horretatik, galdera orokor haietako bakoitzari erantzun bat eman, erantzun on eta zuzen bat, eta

iritzi-giroan hedatu nahi izaten da. Nolabait esateko, demokraziari buruzko definizio teorikoek dimentsio orokor batzuk identifikatu, sailkatu eta proposatzeko joera izaten dute.

Lan egiteko modu horrek aldaera praktiko eta operatibo asko ditu. Esate baterako, aldaera bat da ezagutzaren eta iritziaren arteko korrelazioa ezartzea. Horren arabera, ezagutza-mailari lotuta daude balorazio eta pertzepzio sozialak; zehazki, defizit kognitiboaren hipotesia honela formulatu genezake: demokraziari buruzko iritzi ezkorrek herritarren ezagutza urriari (edo nahasmenari, edo engainuari) zor zaizkio. Beste aldaera bat da demokrazia berezko balio gisa (edota metodo berezi bezala) formulatzea; eta bere prozedurei, errendimenduari, iritziei loturiko dimentsioak eta debateak bigarren mailakotzat ulertzea.



Galdetegiak demokraziaren ulermen ezberdinak ezagutarazi nahi ditu, herritarren kezka eta lehentasunak nabarmentzearekin batera.

Demokraziari buruzko galdera orokorrak beste hainbat eratarara ere formulatu daitezke, ordea. Hau da horietako bat: Zein ikuspegi ezberdin daude demokraziaz eta balio demokratikoez? Kasu horretan, definizio bat emantzat jo ordez, demokraziari buruzko ulermen ezberdinen bilaketa egitea proposatzen da. Ikuspegi epistemologiko eta metodologikotik begiratuta, eredu ezberdin batean aurrean gaude. Neurri horretan, beste galdera hauek ere beste zentzu bat hartzen dute: Zer eragiten du politika demokratikoa izatea? Zein dira nahitaezko ezaugarri edo baldintzak? Praxiari, balioei edota erakundeei lotuak daude ezaugarri eta baldintza bereizle horiek? Zer ari da gertatzen gurean balio demokratikoekin eta kultura politikoarekin? Eta zein dira demokraziaren ahultasunean eragiten duten faktoreak? Bigarren galdera multzoak demokraziaren izaera plurala aitortu nahi du, ez soilik plano teoriko eta normatiboan, bai eta plano enpirikoan ere. Ikuspegi horrekin konprometitzen da galdetegiaren xedea eta diseinua.

² Auzi politikoei dagokionez, bederen, ulermena honela definitu izan da: «Configuration of ideas and attitudes in which the elements are bound together by some form of constraint»; Converse, P. E. (1964): The nature of belief systems in mass publics, in Apter, D.E. (arg.): *Ideology and Its Discontents*, 206-261. New York: The Free.

Bi zehaztapen, gutxienez, eztabaidara ireki daitezke. Alde batetik, testuinguru instituzionalak eta kulturalak dimentsio orokorren esanahian eta garrantzi erlatiboan eragin dezake. Bestetik, demokrazia mota ezberdinak bereizi daitezke, eta sakon-sakonean baita askatasuna, boterea, eraginkortasuna, borondatea, ongia, pertsona edota parte-hartzea bezalako terminoei buruzko ulerkera ezberdinak ere. Demokraziari buruzko ikuspegiaren bilaketak, gainera, aukera ematen digu, ulermen ezberdinak identifikatzeko ez ezik, ulermen horien arteko sakoneko eztabaidak argitzeko ere².



Ulermenen bilaketa

— 02

Gurean, eta gaur egunean, ekarpen aparta da halako ikerketa bat, zalantzarik gabe. Ikertzailearen begiradatik ere, formulazio ireki bezala landu daiteke «zein dira demokraziaren inguruan oinarrizko galderak» auzia; oinarrizko galderak alde zuzenetik eta emantzat jo ordez, ulermen sozialei buruzko analisiak ere galdera egokiak eta testuinguruari edo sasoiari loturikoak azalera-tuko dizkigulakoan gaude. Asmo horrekin diseinatzen saiatu gara, behintzat, galdetegia. Gure asmoa ez da izan demokraziaren ikuspegi batekiko ezagutzak edota iritziak neurtzea, baizik eta demokraziaren ulermen ezberdinak biltzen hasteko lehen urrats bat egitea.

Azken unean, galdetegia diseinatzeko lanean, hipotesi bat formulatuta aritu gara: demokrazia izen bat da, kontzeptu politiko bat, termino bat, hainbatentzat ideal bat ere bai, zeinarekin eduki ezberdinak –eta konkurrenteak– barne-biltzen baititugu³. Demokrazia kontzeptu oso erabilia da, baina edukiz hornitu ohi dugu, eta eduki horien artean lehia eta kontrajartzeak ere ager daitezke. Galdetegiak, neurri batean, eta ondo bidean, hipotesia proban ipintzeko datuak eskainiko dizkigu, beraz. Galdera teorikoa honela formulatu genezake: Zer neurritan planteatzen dituzte ikuspuntu, jarrera eta balorazio sozialek demokraziaren kontzepzio eta aldaera ezberdinak?

Jakina, galdetegi bat izatez mugatzailea da, galdera eta adierazle batzuekin lan egiteko delako, eta horiek, sarri askotan, estandarizatuak daudelako, gainera. Mugen jakitun izanda ere, kontzeptu batzuen egokitasuna eta kontzeptu partekatu horien esanahi gatazkatsua azalertzeko balia daiteke. Beste arrisku bat da demokrazia zernahi izatera irekitzea; horren jakitun izanik, gurean zentzuzkoa zeri deritzogun miatuko dugu; ikuspegieta bat egin ala ez, oinarrizkoak diren eztabaidak identifikatuz, besteren artean.



Hipotesi bat formulatuta aritu gara. **Demokrazia kontzeptu politiko bat da, hainbatentzat ideal bat,** baina sakon-sakonean eduki ezberdinak eta konkurrenteak barne-biltzen ditu, eta eduki horiek lehia politikoan ere kontrajarri ohi dira.

Gainera, edozein kontzeptu politikok testuinguruan hartzen du zentzua, eta ideien eta jarreraren elementuek muga logikoak dituzte; kontzeptuen elementu semantiko batzuk funtsezkoak eta besteak osagarriak dira, eta funtsezkotzat joak direnek, konbentzio modura funtzionatzeaz gain, gure arteko ulerme-

³ Connolly, W. (1974): *The Terms of Political Discourse*. Londres: Heath & Company; Gallie, W.B. (1956): *Essentially Contested Concepts*. *Proceedings of the Aristotelian Society*, 56: 167–198.

na ere bideratzen dute. Esate baterako, (a) askatasuna kontzeptuaren funtsezko ezaugarria da «non-constraint» nozioa⁴; (b) kontzeptuaren ezaugarri osagarriak, berriz, hitzaren zentzua osatzen duten elementu posibleak dira. (Adibidez, tradizio neoerrepublikanoan, askatasuna kontzeptuaren osagarri oinarritzkoa «menderatze eza» da).

Bestalde, kontzepzioen izaera ulertzeko bi ikuspegi bereizi daitezke. Lehenengoaren arabera, demokraziaren ulermen ezberdinak marko normatibo sendoen ondorio dira. Freedom-en arabera, ideologiek egitura zurruna eta nahitaezko elementuak dituzte, baina egitura horretan elementu kontingenteek ere badute tokia, eta askotariko adierazpenak ahalbidetzen dituzte. Haren ikuspegian, abstrakzioak, koherentziak eta normatibizazioak entitate argia dute. Horrela ulertzen da, Freedomen iritziz, familia ideologikoen filosofía politiko kanonikoekin bat egitea. Hori horrela izatera, aski genuke pentsamendu politikoaren korrante instituzionalei arreta ipintzea, ezen handik eratortzen baitira demokraziaren kontzepzio esanguratsu guztiak ere⁵.

Ikuspegi horri beste bat kontrajartzen zaio, eta zalantzan ipintzen du sinesmen politikoen koherentzia. Dean-ek kontzepzio ideologikoen malgutasuna arrazoitzen du, eta testuinguruari loturiko formulazio anbibalente eta baldintzazkoak direla dio⁶. Gure kasura etorruta, tesi horrek demokraziaren kontingentzia azpimarratzen du, eta gaineratzen digu posible dela teoriarik kontrae-sankorrak edo printzipio desberdinei erantzuten dieten ideiak sinestea.

⁴ MacCallum, G.C. (1967): Negative and Positive Freedom. *The Philosophical Review*, 76 (3): 312–334.

⁵ Freedom, M. (1994): Political Concepts and Ideological Morphology. *The Journal of Political Philosophy*, 2 (2): 140–164.

⁶ Dean, R. (2022): «From an Ideological to a Contingent Conceptualisation of Political Process Preferences: A Multidimensional Approach» Paper for the ECPR Annual Conference, 24 August 2022, Innsbruck, Austria.

⁷ Wuttke, A. (2023): Democratic Support as Truism: Ordinary Citizens' Vulnerability to Antidemocratic Temptations. <https://doi.org/10.31235/osf.io/xueap>

⁸ Cho, Y. (2014): To Know Democracy Is to Love It: A Cross-National Analysis of Democratic Understanding and Political Support for Democracy. *Political Research Quarterly*, 67 (3): 478–488; Chong, A. & Gradstein, M. (2015): On education and democratic preferences. *Economic & Politics*, 3 (27): 362–387.

03 — Definizioaren funtsezko edukia

Demokrazia, kontzeptu bezala, ideia biziki heterogeneoa da. Hori dela eta, arrazoizkoa deritzogu demokrazia esanahiz eta zentzuz hornitu behar den ideia gisa hartzeari; esangura emateko modua, gainera, bide ugari eta ezberdinak erabiliz egin ohi da. Ildo horretatik, demokraziak sasoi eta gizarte zehatz batean har ditzakeen bideek haren definizioaren funtsezko edukia aldatzen dute, demokrazia hitzaren definizioa elementu zein dimentsio ezberdinekin osatzeko aukera irekitzen zaigulako. Hori dela eta, funtsezko eduki hori ezagutzea da gure arretaguneetako bat.

Esate baterako, Wuttke-k, demokraziari buruzko galdetegietako emaitzak aztertuta, hainbat kontu nabarmentzen ditu⁷. Alde batetik, demokrazia babes handiko erregimen politikoa da; «gure baitan sakon finkatua dugun konbikzioa». Bestetik, ordea, definizioaren funtsezko edukiak aztertzerakoan, bi arazo nagusi topatu ohi dira: lehenik eta behin, herritarren artean batzuek badute kontzeptuari buruzko definizio osatu eta koherente bat emateko gaitasun apala (eta horrek inplikazio handiak ditu, noski)⁸; bigarrenik, hainbat definiziotan demokrazia liberalarekin kontrajarriak dauden elementuak —



elementu demokratikoak— ere proposatu ohi dira. Galdetegiaren diseinuan, eta galderen eta adierazleen hautaketan eta formulazioan, garrantzia emango diogu bigarren auzi horri.

Ulbricht-ek, bestalde, demokraziari buruzko definizioetan elementu ez-demokratikoak jasotzearen paradoxen inplikazioak azaldu ditu⁹. Horren erakusgarri, demokraziak erregimen politiko bezala babes esplizitu altua badu ere, horrek ez du engaiamendu onargarri bat ziurtatzen; demokraziaren eredu liberalarekin bat ez datozen elementuak inplizitu egon daitezke, esate baterako, fede bati loturiko legeak edota buruzagi politiko ahaltzuak babestea.



Demokrazia esanahiz eta zentzuz hornitu beharreko ideia da. Ikuspegi ezberdinak konparatu ditugu, galdetegian formulatzeko eta lehentasun sozialak ezagutzeko asmoarekin.

Demokraziaren definizioari atxikitzen zaizkion funtsezko edukiak aztertze-ko, bi estrategia nagusi baliatzen dira. Lehenengo estrategia definizioaren konplexutasun-maila ikertzea da: esate baterako, herritarren erantzunetan, (a) demokraziaren definizio minimalista (prozeduretan arreta jartzen duena) eta definizio maximalista (emaitza politiko eta sozialetan arreta jartzen duena) alderatuz¹⁰, edo, ohikoagoa dena, (b) demokraziaren definizioan elementuak metatzeko gaitasuna neurtuz¹¹. Bigarren estrategia edukiaren esanahia ikertzea da. Galdetegiaren diseinuan bigarren estrategia hori jarraitu dugu, zeinak aukera ematen baitigu galdetegia eta galdetegiko datu orokorrak nazioarteko beste ikerketekin ere konparatu ahal izateko.

Datozen ataletan, eztabaida teoriko horiek tratatzeko erabilitako erreferentzia nagusiak laburtuko ditugu. Edonola ere, arreta handiena galdetegian jaso ditugun galderak eta adierazleak esplikatze lagungarri zaizkigun haietan ipiniko dugu.

⁹ Ulbricht, T. (2018): Perceptions and Conceptions of Democracy: Applying Thick Concepts of Democracy to Reassess Desires for Democracy. *Comparative Political Studies*, 51 (11): 1.387-1.440.

¹⁰ Baviskar, S. & Malone, M.F.T. (2004): What Democracy Means to citizens – and Why It Matters. *European Review of Latin American and Caribbean Studies*, 76: 3-23.

¹¹ Canache, D. (2012): Citizens' Conceptualizations of Democracy: Structural Complexity, Substantive Content, and Political Significance. *Comparative Political Studies*, 45 (9): 1-27; Chapman, H., Hanson, M.C., Dzutsati, V. & de Bell, P. (2023): Under the Veil of Democracy: What Do People Mean When They Say They Support Democracy? *Perspectives on Politics*, 1-19. doi:10.1017/S1537592722004157

04 — Jarrerazko dimentsioak

Kultura politikoa guztion auziei buruzko hautemate subjektibo eta orientazio psikologiko bezala definitu izan da. Politikari buruzko balio, sinesmen eta jarreraren multzo bezala ere zehaztu genezake¹².

Gure galdetegia diseinatzeko, aintzakotzat hartu ditugu kultura politikoari buruzko inkestak. Hiru dimentsio bereizi ohi dira. Lehenengoa dimentsio kognitiboa da, eta herritarrek politikari buruz duten informazioa, ezagutza, ulermena eta interesa bezalako adierazleak baliatzen dira galdetegietan. Bigarrenak, dimentsio afektiboak, berriz, herritarrei demokraziak eta bere funtzionamendurako erakunde zein ordezkariak zer-nolako afektua eta sentimendua eragiten dieten neurtzea bilatzen du. Hirugarren dimentsioa, azkenik, ebaluaziokoa da, eta sistema politikoari eta horren osagaiei buruz egiten den balorazioa ezagutu nahi izaten da.

Azken bost hamarkadetan zehar, inkesta ugari egin dira demokrazietako kultura politikoak ezagutzeko. Horri esker, serie historikoak alderatzeko edota herrialdeen arteko konparaketak egiteko modua izan dugu. Inkestetako datuen interpretazioei esker, demokraziarekiko oinarritzko orientazioak hiru dimentsiotan bereizteko premia ondorioztatu da. Alde horretatik, demokraziari buruzko jarrerak ganoraz ulertu ahal izateko, hiru dimentsio kontzeptual eta enpiriko bereizi behar dira.

Hori dela eta, demokraziari buruzko ulermenei dagokien galdetegia diseinatzerakoan, jarrerazko hiru dimentsio bereizi eta kontuan hartu beharko ditugu, ezinbestean. Hauek dira hiru dimentsio kontzeptual eta enpirikoak:

- 1 *Sistema politikoaren hautematea, edo legitimitatea.* Kasu honetan, erregimen politiko ezberdinekiko babes-maila neurtzen da. Kasu batzuetan, dimentsio hau neurtzeko adierazle bezala erakunde demokratikoekiko jarrera positiboa baliatu izan da (demokrazia gobernu-forma egokiena den galdetzen da). Bi kasuetan, legitimitate demokratikoa neurtzeko galderak jakin nahi du demokrazia erregimen politiko egokiena bezala hautematen ote den guztion helburuak arrakastaz lortzeko¹³.

Beste bide bat herri-erakundeekiko konfiantza-mailari buruz galdetzea da. Halere, lagin bidezko analisisietan, adierazle horrek legitimitate demokratikoa dimentsio gisa bihurtzeko arriskua izan dezake. Izan ere, herritarren iritzietan erregimen politikoari buruzko jarrera instituzio errealekiko balorazioarekin nahasteko joera izaten da¹⁴.

- 2 *Errendimenduari buruzko ebaluazioa, edo gogobetetasuna (edo nahigabea).* Kasu honetan, sistema politikoaren eta herri-agintarien eraginkortasunari buruzko balorazioa eta haiekiko asetasuna edo poztasuna neurtzen dira.

¹² Almond, G.A. & Verva, S. (1963): *The Civic Culture: Political Attitudes and Democracy in Five Nations*. Princeton: Princeton University Press.

¹³ Diamond, L. & Lipset, S.M. (1995): «Legitimacy», in Lipset, S.M. (arg.): *The Encyclopedia of Democracy*, volume 3, 747-751. Washington, DC: Congressional Quarterly Press.

¹⁴ Muller, E.W. & Jukam, T.O. (1977): On the Meaning of Political Support. *American Political Science Review*, 71: 1561-1595.



Oinarrizko arazoei aurre emateko, demokraziaren efikazia (agintarien errendimendua eta emaitza politikoen balorazioa) ezagutu daiteke hainbat adierazle baliatuta. Horietako bat (a) lehenetasunen eta emaitzen arteko arrakalari buruzko hautematea da (errendimendua eta horri buruzko pertzepzioa). Beste bat, berriz, (b) egoera ekonomiko eta politikoari eta agintariei buruzko poztasun-maila da (espektatiben betetze-mailarekiko pertzepzioa, alegia)¹⁵. Demokraziaren efikazia ebaluatzeko izaera ezberdineko bi iturri dira. Kasu batzuetan, halere, galdera zuzenak egiten dira; hala nola, poztasun-maila demokraziaren funtzionamenduarekin.

Bi kontu orokor agerikoak dira. Alde batetik, gobernuko alderdiarekiko hurbiltasuna (edo oposizioko alderdi batekiko gertutasuna) gogobetetasuna iragarri ahal izateko adierazlea izan ohi da; gehienetan, iragarle (prediktore) modura funtzionatzen du, beraz¹⁶. Bestetik, jarrerazko bigarren dimentsio hau oso lotua dago testuinguru sozio-ekonomikoari eta gizarte-giroari; gainera, eraldaketa handiko sasoietan transformatu egiten dira espektatiba eta eskaera sozialak ere, sarri askotan gizarte-giro nahasiak deskontentua hedatuz eta areagotuz. Horixe da gure sasoi historikoaren berezitasuna, hain zuzen ere.

- 3 Demokraziaren osagai ezberdinekiko lotura afektiboa, edo atxikimendua (edo sistema politikoarekiko urruntzea, edo desafekzioa). Kasu honetan, sistema politikoaren osagai afektiboari kontu egin, eta neurtzen dira (a) herritarren inplikazio psikologikoa politikan eta (b) euren efikazia politikoaren zentzua¹⁷.

Lehenengo kasuan, interes politiko subjektiboa da adierazle nagusia. Kasu horretan, lotura afektiboa neurtzeko galderek kontu hauek neurtzea bilatzen dute: politikak eragiten digun jakin-mina, alderdi politikoen balorazioa, politikaz hitz egiteko ohitura eta maiztasuna, parte-hartzea, albiste politikoei (eta iturri ezberdinekoei) kasu egitea, edo hauteskunde-kanpainen jarraipena, besteak beste¹⁸.



Herritarrek jarrerazko hiru dimentsioak bereizteko dimentsio bereizi ohi dituzte: legitimitatea edo babesia; poztasuna; eta osagai politikoekiko afektua. Galdetegian hiruei arreta ipintzea funtsezkoa da, beraz.

Osagai afektiboari dagokion bigarren adierazle orokorra da herritarren efikazia politikoaren hautematea. Herritarrek (a) bere buruaz eta (b) sistema politikoaz zer-nolako pertzepzioak dituen neurtzeko jarrerak bi eratakoak dira¹⁹. Alde batetik, auzi politikoak ulertzeko konpetentzia per-

¹⁵ Gamson, W.A. (1968): *Power and Discontent*. Homewood, Illinois: Dorsey Press.

¹⁶ Schmitt, H. (1983): Party Government in Public Opinion: A European Cross-National Comparison. *European Journal of Political Research*, 11: 353-375.

¹⁷ Farah, B.G., Barnes, S.H. & Heunks, F. (1979): Political Dissatisfaction, in Barnes, S.H. & Kaase, M. (arg.): *Political Action. Mass Participation in Five Western Democracies*, 409-448. Beverly Hills: Sage.

¹⁸ Hirschman, A.O. (1982): *Shifting Involvements. Private Interest and Public Action*. Princeton: Princeton University Press.

¹⁹ Gabriel, O.W. (1995): Political Efficacy and Trust, in van Deth, J.W. & Scarbrough, E. (arg.): *The Impact of Values*, 357-389. Oxford: Oxford University Press.

20 Dahrendorf, R. (1980): Effectiveness and Legitimacy: On the Governability of Democracies. *The Political Quarterly*, 51: 393-410; Di Palma, G. (1970): *Apathy and Participation. Mass Politics in Western Societies*. New York: The Free Press; Easton, D. (1975): A Re-Assessment of the Concept of Political Support. *Journal of Political Science*, 5: 435-457; Offe, C. (1984): Legitimacy versus Efficiency, in Offe, C.: *Contradictions of the Welfare State*, Ch. 5. Cambridge: Massachusetts Institute of Technology Press.

21 Kuechler, M. (1991): The Dynamics of Mass Political Support in Western Europe: Methodological Problems and Preliminary Findings, in Reif, K. & Inglehart, R. (arg.): *Eurobarometer. The Dynamics of European Public Opinion*, 275-293. Londres: Macmillan.

22 Ikerketa enpirikoek berretsi dute hiru dimentsio horietako bakoitzean adierazleen garrantzi erlatiboa ezberdina izan daitekeela. Gure asmoetarako, baina, azalpen orokorra egokiagoa da, ezen gurean halako ikerketak gutxi egin baitira, eta horietaz galdetu, proban ipini eta garrantzia neurtzeari aukerakoa deritzogu.

23 Craig, S.C., Niemi, R. G. & Silver, G.E. (1990): Political Efficacy and Trust: A Report on the NES Pilot Study Items. *Political Behavior*, 12: 289-314.

24 Habermas, J. (1975 [1973]): *Legitimation Crisis*. Boston: Beacon Press.

25 Inglehart, R. (1997): *Modernization and Postmodernization: Cultural, Economic, and Political Change in 43 Societies*. Princeton: Princeton University Press; Inglehart, R. & Welzel, C. (2005): *Modernization, Cultural Change, and Democracy: The Human Development Sequence*. Cambridge: Cambridge University Press.

tsonalei buruzko pertzepzioa eta politikan eragiteko gaitasun politikoari buruzko pertzepzioa. Bestetik, instituzio eta autoritate politikoek herritarren eskaerei arreta ipini eta erantzuteko (*responsiveness*) duten gaitasunari buruzko iritzia.

Ikus daitekeenez, beraz, jarrerazko hiru dimentsio nagusi eta ezberdini buruz ari gara —plano teorikoan formulatuak²⁰, eta galdetegi-tako datuen bidez plano enpirikoan berretsiak ere bai²¹—. Bestela esanda, hiru orientazioetako bakoitza bereizi, eta hiruetako bakoitzak logika bati erantzuten diola esan nahi dugu; herritarrek euren jarreretan hirurak bereizteko gaitasuna eta joera dituzte²². Demokraziari buruzko ulermenak ezagutze aldera, hiruretako bakoitzari kontu egin beharko zaio, beraz²³.

Bestalde, hiru jarrera horietako bakoitzean esperientzia sozialak, testuinguru ekonomikoak eta giro politikoak eragin dezakete²⁴. Gainontzean, belaunaldien jarrerek ere, oparotasuneko eta aldaketa kulturalako sasoi-tan bederen, patro-i ezberdinak jarraitu ohi dituzte²⁵. Guztiarekin ere, prozesu demokratikoek ez dute zertan atzeraezinak eta metakorrak izan. Esate baterako, demokrazietako liskar politikoak auzi kulturalekin eta moralekin eta bizi-ohiturei buruzko lehentasunekin lerrokatu daitezke²⁶, aukera edo eskaera berrien inklusioak egoera transformatu²⁷, batzuen erreakzioa batzuen erreakzioa (haserrea, erremina) piztu²⁸, edota bestelako lehentasunak baztertzen dituelako²⁹. Jarrerazko dimentsioak testuinguru zehatzetan mamitzen dira³⁰.

26 Norris, P. & Inglehart, R. (2019): *Cultural Backlash: Trump, Brexit and Authoritarian Populism*. Cambridge: Cambridge University Press.

27 Bell, D. (arg.) (1962): *The Radical Right. The New American Right Expanded and Updated*. New York: Doubleday & Company.

28 Alexander, J.C. (2006): *The Civil Sphere*. New York: Oxford University Press; Alexander, J.C. (2018): *Frontlash/Backlash: The Crisis of Solidarity and the Threat to Civil Institutions*. *Contemporary Sociology*, 48 (1): 5-11.

29 Lessenich, S. (2019): *Grenzen der Demokratie. Teilhabe als Verteilungsproblem*. Ditzingen: Reclam.

30 Eizagirre, A. & Muñoa, I. (2022): «Kultura politikoari guretik begira», in Etorikizuna Eraikiz Think Tank: *Kultura politiko berri baten eraikuntza Gipuzkoan: kontzeptuak, metodologia eta esperientziak*, 27-41. GFA: Donostia. Hortik interpreta daitezke demokraziari buruzko jarreraren bilakaeraren inguruko tesi ezberdinen arteko eztabaidak ere. Ikus, eta alderatu, besteren artean: Foa, R.S. & Mounk, Y. (2016): The democratic disconnect. *Journal of Democracy*, 27 (3): 5-17; Merkel, W. (2014): Is there a crisis of democracy? *Democratic Theory*, 1: 11-25; Norris, P. (2011): *Democratic deficit: critical citizens revisited*. Cambridge: Cambridge University Press.



Demokraziaren balioa

Galdetegia diseinatu ahal izateko, kontu egin diegu demokraziaren balioa interpretatzeko hurbilketa teoriko ezberdinei ere. Demokraziari buruzko kontzepzioen artean, demokraziaren balioa edo zergatia arrazoitzeko ikuspegi ugari daude. Hori dela eta, errebisio teorikoak aukera ematen digu galdera eta adierazle esanguratsu batzuk identifikatu eta formulatzeko.

Demokraziaren gaiari ikuspegi instituzionalistatik heldu dietenen kasuan, ekarpenik garrantzitsuenak bi dira: batetik, demokraziaren kontzeptua argitzeko ahalegina egin dute, eta, bestetik, demokraziaren prozedura bereizleak (zerk egiten du demokrazia erregimen politiko berezia izatea) nabarmendu eta arrazoitu dituzte.

Demokraziaren propietateak azpimarratzeko ahalegin horretan, tesi entzutetsuenetako baten arabera, metodoa eta prozedura da demokraziaren berezitasun nagusia, eta, zehazki, antolaera juridikoa erabakitze askatasun politikoa izatea; herritarrek obeditzen duten antolaerak euren askatasunean du jatorria³¹. Hori dela eta, demokraziaren propietate esanguratsuen da ordezkariak —zehazki, alderdi politikoen arteko lehiaren bidez— hautatzea. Horri hiru ezaugarri gaineratu ohi zaizkio: batetik, hauteskundeak sufragio unibertsal, berdin, aske eta sekretuan oinarritzea; bestetik, herritarrei askatasun politikoa aitortzea; hirugarrenik, erabakiak gehiengoz hartzea.

Nolabait esateko, demokraziak berezko balioa du, eta propietate horiek dituen heinean da ona demokrazia; demokrazia, beraz, bere baitan da helburu. Hortik begiratuta, zera esango genuke: demokrazia ulertu eta baloratzeko garaian, bigarren mailakoak dira emaitzak eta lorpenei buruzko pertzepzio eta iritzi sozialak. Galdetegietan legitimitate demokratikoa jarrerazko dimentsio bezala bereizi ohi denean (edo erregimen politikoen arteko alderaketa egin eta balorazioa eskatzen zaigunean), neurri batean behintzat balio intrintseko horren balorazioa neurtu nahi dela esan genezake.

Demokraziaren berri emateko beste bide emankor bat da demokrazia ideala eta demokrazia erreala bereiztea³². Printzipio demokratiko bereizgarria berdintasun intrintsekoa litzateke; alegia, herritar guztiak euren buruaren jabe izatea. Printzipio horrek esplikatu litzuke demokraziaren propietateak eta mekanika. Dahl-ek, esate baterako, bost irizpide proposatzen ditu: (1) parte-hartze efektiboa; (2) botoa emateko aukera berdina izatea eta boto guztiek balio bera izatea; (3) herritarrek politika (publiko) ezberdinak eta horien ondorioak ezagutzeko aukera berdina eta efektiboa izatea; (4) herritarrek aukera eskusiboa izatea agendan zer gai kontuan hartu eta nola bideratu erabakitze (agenda politikoaren kontrola); (5) bosgarren irizpidea honako hau da: lau irizpide horietatik azaleratzen diren eskubideak herritar orok izatea.

³¹ Kelsen, H. (1929): *Vom Wesen und Wert der Demokratie*. Tübingen: Mohr.

³² Dahl, R.A. (1971): *Polyarchy: Participation and Opposition*. New Haven: Yale University Press; Dahl, R.A. (1989). *Democracy and Its Critics*. New Haven: Yale University Press.

Dahl-en beste ekarpen inportante bat da ideal horiek nola-hala erdiets daitezzen (demokrazia erreala) zazpi erakunde proposatu izana: (1) politikei buruzko erabakien kontrola hautetsiei dagokie; (2) hautetsiak hauteskunde garbi, aske, inpartzial eta erregularren bidez aukeratzen dira; (3) herritarrek dute hautetsi horiek hautatzeko eskubidea (sufragio inklusiboa); (4) herritar horiek berek hautatuak izateko eskubidea ere badute; (5) herritarrek auzi politiko eta ekonomiko ezberdinei buruz adierazteko askatasuna dute; (6) herritarrek informazio-iturri ezberdinak baliatzeko eskubidea dute, eta iturri ezberdin horiek legeak babesten ditu; (7) herritarrek, euren eskubideak berma daitezzen, elkarrekin sortzeko eskubidea dute (alderdi politikoak, interes-taldeak, eta abar).



Kontu egin diegu demokraziaren balioa interpretatzeko bi modu ezberdini: batek balio intrinsekoa aitortzen badio, besteak balio estrinsekoa, edo instrumentala. Hortik abiatuta, tipologia konplexuagoa osatu da..

Demokraziaren ezaugarri behinena mekanikan eta prozeduren berezitasunean datzala argudiatzea onarpen zabaleko ideia da (demokraziaren prozedurazko kontzepzioa)³³. Botoa emateko aukera —eta boto guztiek pisu bera izatea—, hauteskundeak sufragio unibertsalean oinarritzea, eta gehiengoaren araua dira, ziurrenik, gehien nabarmenduak; horiei gaineratu ohi zaie, bestetik, askatasun politikoak eta minorien eskubideak bermatzea (eta minoriei gehiengo izatera iristeko aukera eta eskubidea aitortzea).

Azken unean, demokraziari buruzko prozedurazko ikuspegiak zera aitortzen du: aukera-berdintasunean, gehiengo zein gutxiengo ordezkatzen duten haiei, inori ez zaiola ukatuko gobernu-kontrolaren alternantzia erdiesteko aukera. Prozedurazko azalpen horiekin batera, gehientsuenetan, demokraziaren balioa modu ireki, orokor eta zabalean arrazoitu ohi da.

Dahl-ek, esate baterako, bere irizpideak eta erakundeak kontuan hartuta, adierazi du demokraziak autokrazia saihestu, eskubide oinarritzkoenak babestu, askatasun pertsonalak eta autonomia morala erabiltzera bultzatu, edota herrialdearen oparotasuna bideratzen duela. Hari beretik, demokraziari aitortu ohi zaio pertsonentzat eskubideak hedatu eta orokortzeko ahala ere. Demokraziaren balio orokorrari buruzko ikuspegi edo hurbilketen artean, honako hau da beste irizpide bat: demokrazian legeen eta politiken jatorria hauteskunde garbietan datza, eta erabaki legegile, politiko eta judizialek legezko bermeak dituzten heinean, horren ondorio logikoak dira onargarrita-

³³ Bobbio, N. (1984 [1987]): *The Future of Democracy*. Minneapolis: University of Minnesota Press.



sun soziala eta erabakiak betetzeko borondatea (obligazio politikoa). Demokraziari balio hezitzailea ere aitortu izan zaio. Horren arabera, erregimen politikoa hauteskunde garbietan oinarritzen den heinean, autoritate politikoaren izaerari, zentzuari eta aukerei buruz gogoeta praktikoa egiteko modua eskaintzen digu demokraziak.

Jakina, prozedurazko irakurketek demokraziaren balio minimalista arrazoitzeak aukera ematen dute. Horren arabera, demokrazietan, metodoaren berezitasuna dela eta, esfera politikoan autonomia pertsonala garatu daiteke. Beste arrazoietako batzuk modu errektiboan formulatu daitezke. Horietako baten arabera, erregimen politiko demokratikoak boterearen gehiegikeriak saihestea —edo gutxitzea— ahalbidetzen du, demokraziaren balio nagusia askatasun politikoa den heinean.

Honela dio beste arrazoiketa batek: demokrazietan ondasun publikoak hedatu eta ugaritzeko aukerak handitzen dira, agintariak hauteskunde bidez hautatu (lehiakortasuna) eta erabakiak arau legalak dituzten baitira (berme juridikoa). Bestelako erregimen politikoetan —zeinetan gobernuen bermea hertsadura ezberdinak ez ezik jardura ekonomiko ona ere izan baitaitezke—, handiagoa da ustelkeriarako probabilitatea, ohikoagoa patrimonialismoa ere, eta gertakari negatiboak (krisi ekonomikoa, diktadorearen heriotza, altxamendu eta porrot militarra) erregimen politikoa bera auzitan ipintzea eragiten dute, gainera³⁴.

Beste batzuen irudiko, baina, demokrazia bitarteko bat da, eta arrazoiketa instrumentalean egiten da azpimarra. Kasu horretan ere, hainbat tesi planteatu izan dira. Batzuen ustez, demokraziak aukera ematen du pertsona taldeen arteko gatazkak modu baketsuan bideratzeko; Przeworski-ren arabera³⁵, hauteskunde-demokraziaren lorpenik handiena da joera ezberdineko pertsona taldeek gobernu-kontrolaren alternantzia toleratzea, ezen erregimen demokratikoetan hauteskundeetako galtzaileak hurrengo hauteskunde-lehian irabazi eta bere arauak eta lehentasunak ezartzeko itxaropenari eusten baitio. Przeworskik demokraziaren balioari buruzko ikuspegi minimalista ere badu. Zehazki, gizarte pluraletan, zeinetan lehentasunak heterogeneoak baitira, hauteskunde bidezko gehiengo sinplearen arauak erabaki arrazionalak identifikatzeko eta atsekabe politikoa txikiagotzeko aukera zabaltzen du³⁶.

³⁴ Acemoglu, D. & Robinson, J. (2019): *The Narrow Corridor: States, Societies, and the Fate of Liberty*. New York: Penguin Press.

³⁵ Przeworski, A. (2018): *Why Bother With Elections?* Londres: Polity Press.

³⁶ Jakina, gobernu-kontrolaren alternantzia baldintzatzaile askoren menpekota da. Horrez gain, gobernuko alderdiak normalean abantaila du, esate baterako, agenda publikoan gaiak hautatu ahal izateko, eta hauteskunde-lehia asimetrikoa izan daiteke; bitarteko beste hainbat erakunderen bitartekaritza ere garrantzitsua da (adibidez, komunikabideena). Ordezkaritzako demokraziaren kritiketako bat muga edo zailtasun errealei eta prozesu politikoaren joerei zor zaio, hain zuzen ere. Hortik abiatuta, beste bi ikuspegi bereizi ditzakegu: (a) ordezkaritzako demokraziaren izateko kritika egin eta bestelako ikuspegiak proposatzen dituztenak; (b) hauteskunde-demokrazia prozedura osagarrien bidez erreparatu edota aberastea bilatzen dutenak. Horri buruz, ikus lan honen hurrengo bi atal nagusiak.

Beste batzuen ustez, erregimen politiko demokratikoak aberastasunaren sorrera eta banaketa erdiesteko bitartekoak ezartzen ditu. Horren arabera, demokraziak efektu zuzentzaileak ditu gizarteko eta merkatuko ezberdintasunen aurrean —eta horiei loturiko ondorio ezberdinetan—. Hortik begiratuta, noski, demokraziaren legitimazioa eta konfiantza politikoak baldintza batzuen menpekoak dira; errendimenduaren, ondasun publikoen hornikuntzaren, eta horien esleipen eta kostuen banaketa justu samarra hautematearen baldintzapean daude.

Demokraziaren aldeko beste arrazoiketa instrumental batzuk ere aipa daitezke. Horien artean, hauek dira esanguratsuenak, edo pisu handienekoak: hauteskunde-demokraziak gogorkeria politiko txikitzen du; eskubide zibilak bermatu eta inklusio politiko hedatu, zabaldu eta areagotu dezake³⁷; bere funtzionamendua, kalitatea eta babesa hobetzeko aukerak eskaini eta garatu ditzake (aurretiazko kontsultak esperimendatuz, deliberazio-prozesuak ugariatuz, edota epaileen zeregina nagusiki joko demokratikoaren prozedurazko arauen babesean zentratuz, besteak beste);³⁸ beste arrazoiketa instrumental batek honela dio: politika publikoei buruzko afektu soziala eta konfiantza nola hala mantendu egiten du. Zalantzarik gabe, kontuan hartu beharreko beste arrazoiketa bat ikuspegi epistemikoak gaineratzen digu. Horren arabera, demokrazia prozedura egokiagoa da —autokraziarekin alderatuz— arazo konplexuei aterabidea aurkitzeko³⁹; epistokrazia ere lehiatzen zaio, aditu eta trebeenen gobernu ikuspegi aniztasunaren balio epistemikoarekin kontrajarriz⁴⁰. Guztiarekin ere, ezagutzak bezainbat galdera, kezka edota behar mobilizatu eta politizatzea ahalbidetu dezakeen heinean, demokraziari beste era bateko erregimen sozioteknikoak ireki eta bideratzeko balioa aitortzen zaio⁴¹. Halako arrazoiketa multzo batean, beraz, demokrazia egitate horiek bermatu edota sustatzeko bitarteko gisa arrazoitzen da (demokraziaren balio estrintsekoa).

Ikus daitekeen moduan, demokraziaren balioa modu askotara ulertu edota arrazoitu daiteke. Horrez gainera, arrazoiketa ezberdin horiek diagnostikoa egiteko irizpideak ere ematen dizkigute. Esate baterako, demokraziaren balio instrumentalari kontu egitearen abantaila nagusia da demokrazia errearen mugak ere azaleratzen dizkigula. Modu honetako argudio-kate bat osa genezake: (a) gatazkak biolentziaren bidez prozesatzeak kostu ikaragarriak dituen heinean, (b) demokraziak legitimitate eta babes handia izan dezake, (c) baina gerta liteke aukariaren interesak toleratzea gero eta nekezagoa izatea, (d) ezberdintasun sozioekonomikoak edota eskaeren dibertsifikazioa handiegia bada, konpentsazioko politikak diseinatu eta garatzea zailtzen bada, edota birbanaketako gatazken intentsitateak ikuspuntuak eta lehentasunak elkarrengandik aldentzen baditu; horren ondorioz, (e) demokraziaren funtzionamenduari buruzko nahigabea eta haren osagaiekiko desafekzioa handitu egiten da. Horren sintoma agerikoa da, gaur egunean, iritzi-giro zeharo nahasietan, pertsona taldeen artean alderdi politikoekiko identifikazio ezberdinak sorrarazten duen polarizazio afektiboa; hori gutxi ez, eta paradoxa handiena konbergentzia ideologikoa da (alderdi politikoak logika

³⁷ Phillips, A. (1998): *The Politics of Presence*. Oxford: Oxford University Press; Young, I.M. [1990] (2011): *Justice and the Politics of Difference*. Oxford: Princeton University Press; Young, I.M. (2000). *Inclusion and Democracy*. Oxford: Oxford University Press.

³⁸ Bua, A. & Bussu, S. (arg.) (2023): *Reclaiming Participatory Governance Social Movements and the Reinvention of Democratic Innovation*. London: Routledge; Reuchamps, M. & Welp, Y. (arg.) (2023): *Deliberative Constitution-making: Opportunities and Challenges*. London: Routledge.

³⁹ Estlund, D. (2009): *Democratic Authority: A Philosophical Framework*. Princeton: Princeton University Press.

⁴⁰ Landemore, H. (2012): *Democratic Reason: Politics, Collective Intelligence and the Rule of the Many*. Princeton: Princeton University Press.

⁴¹ Eizagirre, A., Rodríguez, H. & Ibarra, A. (2017): Politicizing Responsible Innovation: Responsibility as Inclusive Governance. *International Journal of Innovation Studies*, 1 (1): 20-36.



sistemikoaren mendea daude, eta herritarren gehiengoaren artean ikuspuntu ideologikoak ez dira aldentzen ari)⁴².

Demokraziaren balioei buruzko ikuspegi instrumental batzuen mugetako bat (zehazki, demokrazia eta ongizate sozioekonomikoa lotzen dituzten ikuspegiak) zera da: instituzioetan eta horien efektuetan pisu handia ezarri, eta, gehientsuenetan behintzat, baldintzatzaile exogenoen efektua (aldagai demografikoa, testuinguru ekonomikoa, kokapen geografikoa, tradizio kulturala) bigarren mailan uzten dutela⁴³. Alabaina, gerta liteke azken hamarkada luzeetan herrialde demokratikoen abantaila konparatiboa beste baldintzatzaile horiei zor izana; eta, kasu horretan, oparotasun sozioekonomikoa demokraziaren garapenaren baldintzatzaile inportantea litzateke (demokrazia garapen ekonomikoa bezainbat, edo gehiago). Alde horretatik, gaur egunean, demokraziaren balioa (eta legitimazioa) zenbat eta lotuago egon errendimendu sozioekonomikoari, areagotu egin daitezke funtzionamenduari buruzko mesfidantza eta sinesgarritasunaren galera (edo nahigabea); eraldaketa teknologikoak, globalizazioak edota herrialde lehiakor berrien nagusitasunak garrantzi handiagoa hartu ahala, esate baterako⁴⁴. Gaia oraindik arantzatsua da, ezen herrialde demokratikoetan, orain artean bederen, egonkortasun instituzionala eta oparotasun ekonomikoa handiagoak izaki, gobernuen tamainak, ondasun publikoen eskaerak eta herri-erakundeen gas-tuaren maila erlatiboak ere igotzeko joera izan baitute. Demokraziaren berme ekonomiko horiek, ordea, krisi betean daude.

Galdetegiaren diseinuari begira, gure helburu orokorra demokraziari buruzko ulermenak azaleratu eta alderatzea bada, galdera eta adierazleetan kontu egin beharko diegu demokraziaren elementu normatibo, instrumental eta enpiriko horiei ere.

Ordezkaritza politikoaren auzia

Demokraziaren balio eta irizpide bereizleen artean, batzuek metodoan ipintzen dute arreta. Arrazoiketa konbentzionala honela taxutzen da: demokraziaren eraketa pertsonen askatasun politikoan funtsatzen da, eta ordezkariak hautatzeko erabakimenak —«aukeramenak»— legez erabakitakoa betetzeko obligazio politikoa barnatzea ere bada. Kasu horretan, demokraziaren propietate nagusiak prozedurazkoak dira, hala nola, ordezkariak hautatzea, sufragio unibertsala, gehiengoaren araua eta ordezkaritza proportzionala. Beste batzuen ustez, ostera, demokraziaren irizpide bereizlea berdintasun intrintsekoa da, eta demokraziaren ezaugarri nagusi bezala arrazoitzen dira pertsonen heldutasuna, euren arteko berdintasuna, eta parte-hartze efektiboa.

⁴² Eizagirre, A. eta Muñoa, I. (2023): *Sustraiako eraldaketak munduan: joera ekonomiko eta politikoen bihurtuneak*. Lasarte-Oria: OREKI.

⁴³ Acemoglu, D. & Johnson, S. (2023): *Power and Progress: Our Thousand-Year Struggle Over Technology and Prosperity*. Londres: Hodder And Stoughton Ltd.

⁴⁴ Rodrik, D. (2011): *The Globalization Paradox. Why Global Markets, States, and Democracy Can't Coexist*. Oxford: Oxford University Press

⁴⁵ Bächtiger, A., Dryzek, J.S., Mansbridge, J. & Warren, M. (arg.) (2018): *The Oxford Handbook of Deliberative Democracy*. Oxford: Oxford University Press; Dryzek, J.S. et al (2019): *The Crisis of Democracy and the Science of Deliberation*. *Science*, 363 (6432): 1.144-1.146; Gustily, J. & Levine, P. (arg.) (2005): *The Deliberative Democracy Handbook: Strategies for Effective Civic Engagement in the Twenty-First Century*. San Francisco, CA: Jossey-Bass; Parkinson, J. & Mansbridge, J. (arg.) (2012): *Deliberative Systems. Deliberative Democracy at the Large Scale*. Cambridge: Cambridge University Press.

Bi ikuspegi horien arteko ezberdintasun teorikoak aukera ematen digu ordezkariari buruzko auziari heltzeko. Alde batetik, demokraziari buruzko bi ikuspegiak bat egin izan dute ordezkari sistema politiko demokratikoaren ezaugarria dela baieztatzean. Bestetik, ordea, lehen ikuspegiaren ordezkari-zako demokrazia berezko ezaugarria —edo demokrazia eratzeko modu naturala— da; bigarren kasuan, aukera bat da (ez da nahitaezko ezaugarria), eta hainbat baldintzaren menpekota ere bada, nahiz eta orokorrean demokrazia pluralistetan arrazoi funtzional eta teknikoak baliatuz aukera ohikoena eta zentzuzkoena bezala justifikatu izan den.

Ñabardura horiek aukera ematen digute ordezkariari ari garenean ageriko hiru dimentsio teoriko gutxienez bereizi ahal izateko: alde batetik, sistema politiko guztien antolaketan ordezkarien eta ordezkatuaren artean harremana egituratzeko modu bat dago; bestetik, harremana demokratikoa izan daiteke, ala ez; hirugarrenik, ordezkariaren kontzeptzio demokratikoak herritarri erabakietan eragina izateko gaitasun efektiboa aitortzen dio, baina, sasoi edota herrialdearen arabera, hedadura eta intentsitate ezberdinean parte hartzeko aukerak esperimentatzea da ohikoena: hauteskunde-demokrazia ezaugarri naturaltzat barneratzerira iritsi garen bezala, bestelako prozedura demokratikoei gutxiak aitortza aldakorra izan dute⁴⁵.



Ordezkaritzaz ari garenean, gutxienez, hiru dimentsio teoriko bereizi ditzakegu: ordezkarien eta ordezkatuaren artean harremana egituratzeko modua; harremana demokratikoa den ala ez; eta, herritarrak, erabakietan eragiteko gaitasuna aitortzen zaionak, parte hartzeko dituen aukerak.

⁴⁶ Iaryczower, M., Montero, S. & Galileu, K. (2022): «Representation Failure». National Bureau of Economic Research. Working Paper 29965.

⁴⁷ Barandiaran, X., Canel, M.J. & Bouckaert, G. (arg.) (2023): *Building Collaborative Governance in Times of Uncertainty: Pracademic Lessons from the Basque Gipuzkoa Province*. Leuven: Leuven University Press; Eizagirre, A. eta Larrea, M. (2023): Lurralde garapenerako ekintza-ikerketa eta politiken eredu klasikoaren eraldaketa. *Jakin*, 256-257: 23-38.

Ordezkaritzaren auzi ezberdin horiek buruzko lehentasun instituzionalak eta sozialak baloratze aldera, bi eratako galderak behintzat formulatu daitezke: galdetu liteke erabaki politikoari buruz (*policy preference*) edota galdetu liteke erabakitze-prozesuari buruz (*process preference*); edonola ere, oraintsu baizik ez zaio ipini bigarren gai horri behar den arreta (erabakitze-prozesuaren demokratizazioa)⁴⁶.

Bestetik, demokrazian —erabakiak hartzeko prozesu bezala ulertuta— sakontzeko bi bide planteatu ohi dira: bat bertikala da (herritarren eta ordezkarien arteko loturarik eza edota urruntzea txikiagotzea du helburu, eta hainbat proba eta saio egin izan dira); bestea, berriz, horizontala da (kasu honetan, herri-erakunde eta gobernu, gizarte zibileko elkarte eta bestelako erakundearen arteko deliberazio-prozesuak ireki eta boterea partekatze moduak esperimentatzen dira)⁴⁷. Horrez gainera, prozesu horiek demokratiza-



tzeko hiru lehentasun bederik bereizi daitezke⁴⁸: 1) parte-hartzea ikuspuntu anitzeko erakunde, leku edota lehentasunen arteko botere-banaketa efektibo bezala; 2) parte-hartzea jakintzaren transferentzia bezala, eta 3) parte-hartzea alternatiba ezberdinen arteko lehia agoniko bezala.

Era bertsuan, ordezkari politikoen joeren eta estrategien arteko ezberdintasunak ere nabarmendu daitezke. Aipa ditzagun horietako bi. Horietako bat hitzarmeneko ordezkari da («*promissory*»); hautetsiek, beren gaitasun eta ekinbidean oinarrituz, hauteskunde-lehian eta gobernuaren osaketan emandako hitza betetzen dute. Beste eredu bat aurreikuspeneko ordezkari da («*anticipatory*»); hautetsiek, lehentasunak ezagutu, horien arteko deliberrazioa sustatu, eta arrazoizko erabakia bultzatzen dute, beren konfiantza eta sinesgarritasuna irabazte aldera. Neurri berean, deliberazioa bi tipo idealetan bereizi daiteke: (a) arrazionala eta kontsentsura bideratua, eta (b) testuinguru zehatz-errealean ulertu eta sentierei, narratibei, espazio informalei, erretorikari kontu egitea funtsezkotzat duena⁴⁹.

Guztiarekin ere, ordezkari, edo herritarren eta ordezkarien arteko harremana eta autoritate-banaketa, oso ezberdin formulatu eta bideratu daitezke, abiapuntuko galderaren arabera. Hiru bereiziko ditugu: 1) zein da ordezkariaren jomuga?, 2) noren helburuetan oinarritzen dira politikak?, eta 3) ordezkaria zer neurritan eta zer modutara da erantzule? Gurea bezalako herrialdeetan, zeinetan burujabetzari loturiko auziak ere nabarmentzen baitira, kontuan hartzekoa da ordezkari eta boterearen lurralde-antolaketaren banaketa ere, noski⁵⁰.

Bestetik, ordezkari eta erabakiak hartzeko irizpideei dagokienez, herritarren, adituen, politikarien eta profesionalen erabaki-sistemari buruzko tipologia oso daitezke (demokrazia / epistokrazia auzia da gaurkotasan handieneko gatazka-ardatza, esate baterako)⁵¹. Eztabaida horrek, zenbait kasutan, demokraziaren eraginkortasunari buruzko diskurtsoarekin lotura izan dezake (gurean ere, hainbatetan, demokraziaren edo ordezkari-sistemaren legitimazio-krisia adituei kontu ez egiteari eta efikazia faltari zor zaiola argudiatu izan da)⁵².

Nolanahi den, lehen ondorio bat azaleratzeko moduan gaude. Ikuspuntu demokratikotik begiratuta (edo demokraziaren ulermen ezberdinak aitortzen baditugu, behinik behin), ordezkari eta parte-hartzea ez dira bi aukera ezberdin modura ulertzen, beraz; demokrazietan, ordezkariaren antitesia eskusioa da⁵³.

Ordezkariaren kontzeptio demokratikoak, gainera, ordezkarien eta ordezkariaren arteko harremanak ulertzeko moduen ugaritasuna azaleratu, eta demokrazia antolatze modu ezberdinak zilegi izan daitezkeela iradokitzen digu. Ildo horretan, gure ingurune zabalean, hauteskundeetako parte-hartzea, aurretiazko kontsultak eta zozketa bidezko deliberazio-taldeak osagarri egiteko egitasmoak bidea urratzen ari dira. Halako gogoeta teoriko batek, gai-

⁴⁸ Dean, R. (2019): Control or influence? Conflict or solidarity? Understanding diversity in preferences for public participation in social policy decision making. *Soc Policy Admin*, 53: 170–187.

⁴⁹ Bächtiger, A., Niemeyer, S., Neblo, M., Steenbergen, M.R., & Steiner, J. (2010): Disentangling Diversity in Deliberative Democracy: Competing Theories, Their Blind Spots and Complementarities. *Journal of Political Philosophy*, 18 (1): 32–63.

⁵⁰ Rehfeld, A. (2009): Representation Rethought: On Trustees, Delegates, and Gyroscopes in the Study of Political Representation and Democracy. *American Political Science Review*, 103 (2): 214–230.

⁵¹ Brown, M.B. (2009): *Science in Democracy: Expertise, Institutions, and Representation*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press; Eizagirre, A. (2007): *Zientziaren politika zibiko bateruntz: kultura zientifikoak, arriskuaren errepresentazioak eta gobernantza*. Leioa: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

⁵² Ordezkari buruzko ikuspegi horiei guztiei loturik ageri dira emaitzei eta prozesuei buruzko legitimitate ezberdinak ere (*consent, coercion, practical efficacy, perceived legitimacy, normative legitimacy*); Mansbridge, J. (2020): The Evolution of Political Representation in Liberal Democracies, in Rohrschneider, R. & Thomassen, J. (arg.): *The Oxford Handbook of Political Representation in Liberal Democracies*: 17–54. Oxford: Oxford University Press.

⁵³ Mansbridge, J. (2003): *Rethinking Representation*. *American Political Science Review*, 97 (4): 515–528.



Herrialde demokratikoetan ordezkartzako erakundeen funtzionamenduari buruzko poztasun-maila txikia, bi era oso ezberdinetan interpreta daiteke: ordezkartzaren sistemaren kritika eta inpugnazio bezala, edo ordezkartzaren sistemaren funtzionamenduarekiko deskontentu eta desafekzio bezala.

nera, aukera ematen digu demokraziari eta hautetsontzien krisiari buruzko ulermena ordezkartzaren krisi bezala formulatzeko⁵⁴. Zentzuzko hipotesia dirudi, eta galdetegiaren diseinua aberasteko pizgarria da.

Izan ere, herrialde demokratikoetan ordezkartzako erakundeen funtzionamenduari buruzko poztasun-maila txikia (nahigabea), ordezkartzaren auziari dagokionez, bi era oso ezberdinetan interpreta daiteke: ordezkartzaren sistema

ren kritika bezala, edo ordezkartzaren sistema galera demokratikoa hauteman eta sentitzearen desafekzio bezala. Bi era horiek demokraziaren krisia definitu eta arrazoitzeko sustraiko bi modu oso ezberdin ere badira⁵⁵. Lehenengoak demokrazia eta ordezkartzaren bereizten ditu; bitartekaritza gabeko demokrazia zuzena soilik du eredu demokratiko bakartzat, alegia. Bigarren interpretazio teorikoak, ostera, ordezkartzaren aitortu eta bere mekanika auzitan ipintzeko aukera ematen digu; ordezkartzaren politikoaren funtzionamenduarekiko sentimendu negatiboa (ordezkartzaren krisia) hainbat modutara arrazoitu daiteke, gainontzean⁵⁶. Edonola ere, bi era horiek askotariko formak hartu ohi dituzte (erabakiak nork eta nola hartu bi auzi dira, eta modu askotara konbina daitezke), eta hainbatetan mugak aise lausotzen dira, noski.

⁵⁴ Andeweg, R.B. & Thomassen, J.J.A. (2005): Modes of Political Representation: Toward a New Typology. *Legislative Studies Quarterly*, 30 (4): 507-538.

⁵⁵ Urbinati, N. & Warren, M.E. (2008): The Concept of Representation in Contemporary Democratic Theory. *Annual Review of Political Science*, 11:387-412.

⁵⁶ Esate baterako, frogatu da Europar Batasunarekiko atxikimendu falta haren aurkako jarrera eta balorazioarekin lotzea funtsatu gabeko arrazoiketa dela. Ikus Van Ingelgom, V. (2014): Integrating Indifference: A Comparative, Qualitative and Quantitative Approach to the Legitimacy of European Integration. Colchester: ECPR Press.

⁵⁷ Bedock, C. (2020): Citizens' Contrasting Aspirations About Their Political System: Entrustment, Participation, Identification and Control. *Frontiers in Political Science*, 2:563351. doi: 10.3389/fpos.2020.563351

Galdetegian ordezkartzari buruzko interpretazio horiei kontu egiteak demokraziaren ulermen ezberdinak neurtzeko makina bat osagai eskaintzen dizkigu. Alde horretatik, hainbat ikerketek aukera soziologiko horren egokitasuna berresten dute. Esate baterako, Bedock-ek, hurbilketa kualitatiboaren bidez, zera egiaztatu du: herritarrek gaitasuna dutela sistema politikoaren ezaugarriak, arriskuak eta aukerak ebaluatzeko eta aspirazio politiko ezberdinei buruz formulazio koherenteak egiteko⁵⁷. Demokraziari buruzko diskurtso ezberdinak ordezkartzaren kontzeptua (eta hedaturaz konfiantza, parte-hartzea, kontrola, identifikazioa) ulertzeko modu desberdinei zor izateak ere onargarritasun teoriko handia du. Atal honetako edukiek badute garrantzia, beraz.

Neurri berean, galdetegian demokrazia bezalako kontzeptu abstraktuekin lan egingo dugun heinean, aukerakoa da bi bereizketa behintzat egitea: (1) demokrazia ideal bezala eta sistema politiko baten egituraketa zehatz bezala bereiztea, eta (2) demokraziari buruzko ulermen ezberdinak bereiztea, alegia.



Bigarren horri dagokionez, esate baterako, demokraziari buruzko sinesmen-sistemak ez dira soilik banakoari eta horren ezagutzazko eta jarrerazko baldintzatzaileei lotuak. Demokraziari buruzko sinesmen-sisteman garrantzia dute, besteak beste, hezkuntzak, politikarekiko interesak edota hurbiltasun-sentimenduak ere. Alde horretatik, kontu egin beharreko elementu abstraktu nahiz funtzionalak dira, eta euren arteko erlazioak nola-halako koherentzia bat eratzen du⁵⁸. Hori horrela izatera, demokraziaren ikuspegi liberal batetik hainbat elementu funtzional ere aurreikusten zaizkio demokraziari («constraint»), eta auresuposatzen da ordezkartzeko-sistema liberalean bizi den pertsonak ere sistema politikoaren osagai eta prozesuei buruzko gaitasun kognitiboak (“cognitive availability”) dituela. Baina gerta liteke gizarteko sinesmen batzuetan halako aurreikuspenik ez betetzea; edo bestelako sinesmen-sistema batzuk azaleratzea, demokraziaren ulermen ezberdinen baieztapen bezala. Demokrazia liberalaren usteekin bat ez etortzeagatik pentsaera, sentiera edota portaera inkoherente gisa ebaluatzeak (patroiaren desbideraketa) demokraziari buruzko bestelako sinesmen-sistemei -eta demokrazia beste era batekoa izateko aukerei- kontu ez egitea ekarri ohi du.

Demokraziari buruzko kontzepzioak

— 07

Abraham Lincoln-ek 1863ko azaroaren 19an Gettysburgen emandako hitzaldian (*Gettysburg Address* bezala ezaguna), ospea eman zion «herriaren gobernu, herriaren alde eta herriarentzat» esaldiari. Demokraziari buruzko kontzepzio tradizionalak esaldi horri lotuak daude, eta esaldiak demokraziari buruzko kontzepzio berriagoak bereizteko irizpidea ere eskaintzen digu.

«Herriaren gobernu, herriaren alde eta herriarentzat» esaldi ikonikoak, ezer baino lehen, hiru demokrazia mota azaleratzeko balio digu: (1) prozesu politiko edota hauteskunde-prozesuetan oinarritutako demokrazia (*of*); (2) askatasunean, eta eskubide guztien jabe izanda, politikan parte hartzeko aukera bermatzen eta sustatzen duen demokrazia (*of* eta *by*); eta (3) herritar guztientzako

⁵⁸ Hernández, E. (2019): Democracy Belief Systems in Europe: Cognitive Availability and Attitudinal Constraint. *European Political Science Review*, 11: 485-502.



Galdetegietan ohikoa da demokraziak nahitaez zer elementu izan behar dituen galdetzea. Gero eta gehiago, ordea, gizartean demokraziari buruz ze ulermen dauden azaleratzeko jakin-mina ere badago. Pixkanaka halako galderei pisu handiagoa eskaintzeak badu sakoneko kezka bat, alegia, populismoen eta erregimen ez-liberalen gorakada.

emaitza positiboak lortzea helburu duen demokrazia (*of, by* eta *for*). Galdetegiak bilatu dezake eredu horietako bati buruzko iritziak eta babesa neurtzea, edota eredu ezberdin horietako bakoitzarekiko jarrerak ezagutzeko, besteak beste⁵⁹.

Herritarrak eredu horiekiko lehentasunaren arabera sailkatzeko, berriz, demokraziak eurentzat zer esanahi duen ulertu behar dugu. Ikuspuntu konbentzionaletik begiratuta, hiru ulermen orokor behintzat bereizi daitezke:

1

Demokrazia (a) askatasun politikoaren eta (b) horri loturiko eskubide ezberdinen aitortzan eta babesean oinarritu behar dela adieraztea konbentzionaletik bereizi daiteke.

2

Prozedura-kontzepzioa (operatiboa, elektorala) lukete, ostera, lehentasuna (a) erabakiak hartzeko eskumena eta (b) erabakiak hartzeko prozedura eta erabakien kontrola arautzea dela argudiatzen dutenek.

3

Hirugarren kontzepzioa soziala da, eta demokraziaren berezitasuna herritarren ongizate ekonomikoa eta errentaren banaketa lehenestarekin lotzen du.

⁵⁹ Schedler, A. & Sarsfield, R. (2007): Democrats with adjectives: Linking direct and indirect measures of democratic support. *European Journal of Political Research*, 46: 637- 659.

⁶⁰ Canache, D. (2012): Citizens' Conceptualizations of Democracy: Structural Complexity, Substantive Content, and Political Significance. *Comparative Political Studies*, 45 (9): 1-27.

⁶¹ Chapman, H., Hanson, M.C., Dzutsati, V. & DeBell, P. (2023): Under the Veil of Democracy: What Do People Mean When They Say They Support Democracy? *Perspectives on Politics*, 1-19. doi:10.1017/S1537592722004157

⁶² Abellán Artacho, P. & Cabrera-Álvarez, P. (2023): Using Surveys to Understand how Democracy is Conceptualised in Spain: A Theoretical and Methodological Approach. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 181: 3-20.

⁶³ Eizagirre, A. & Muñoa, I. (2023): *Sustraiako eraldaketak munduan: joera ekonomiko eta politikoaren bihurtzeak*. Oreaki: Lasarte-Oria.

Jakina, halako sailkapenetara iritsi ahal izateko, informazio-andana bildu eta banakako elkarrizketa sakonak egin behar dira. Hainbat bide osagarri esploratu da, halere. Canache-ek galdetegi erdi-ireki bat diseinatu zuen⁶⁰. Traba metodologikoak gainditzeko ahaleginen artean, Chapman-en taldeak,⁶¹ berriz, *World Values Survey* inkestako datuak baliatu ditu. Kasu horretan, galderak ez dira demokraziaren kontzepzioei buruzko ikerketa baterako berariaz prestatu, eta erronka nagusia da analisirako galdera egokiak hautatzea.

Galdetegietan, oro har, ohikoa da demokraziak nahitaez zer elementu izan behar dituen galdetzea⁶². Hori aurrera eramateko hainbat modu dago: batzuek eskatzen dute demokraziaren elementuak eskala polobakar zein bipolarretan ebaluatzeko (poztasun-eskala, esate baterako); beste batzuek, berriz, elementu ezberdinak proposatu, eta elementu bat lehenestea eta hautatzea eskatzen dute. Galdetegi berean, noski, modu ezberdinak konbina daitezke.

Demokraziari buruzko beste kontzepzio batzuk azaleratzeko jakin-mina ere egon da, ordea. Esate baterako, deliberazio-prozesuei buruz edota teknokraziarekiko jarreraz galderak egiten dira, besteren artean. Pixkanaka halako galderei pisu handiagoa eskaintzeak badu ziurrenik sakoneko kezka bat, alegia, populismoen eta erregimen ez-liberalen gorakada; erregimen politikoaren funtzionamenduari buruzko nahigabeak, demokraziaren osagaietako desfektzioak, alderdi-sistemaren lerrotatze berriak edota hauteskunde-aldakortasunak garrantzia hartu duten sasoian bizi gara, preseski⁶³.



Azken batean, mugimendu politiko berriei kasu eginez gero, zera igar genezake: eredu demokratikoa suntsitu baino gehiago, haren arauak baliatzen dira gobernu-kontrolaren alternantzia aprobeixatu eta, legezko baliabideak erabilia, erregimen politiko eta horren izaera, xedea eta funtzionamendua eraldatzeko⁶⁴. Kontzepzio tradizionalei loturiko galdetegiek arretoa orokorrean demokraziaren nahitazeko elementuetan ipintzen badute, kontzepzio berriagoi loturiko jakingurak erabaki politikoak hartzeko moduei buruzko galderak ere formulatzen ditu.

Lehendik ere, jakina, ahalegina egin izan da demokraziaren propietate kontzeptualak (agintariak hauteskunderen bidez aukeratzea, sufragio unibertsala, gehiengoaren araua) ireki, eta agendaren kontrola bestelako elkarte bidez garatu dadin; edota efikazia politiko subjektiboa sendotu eta trinkotzeko probak ere egin dira, besteak beste, ordezkarietarako sistemarekin osagarri izan daitezkeen beste prozedura demokratiko batzuk esperimentatuz⁶⁵.

Guztiarekin ere, azken hamarkadetan demokrazia liberalari buruzko eztabaida gehientsuenak bi ardatzetan egituratzen dira (biak gurutzatu egiten dira sarri askotan, halere): a) ordezkarietza / deliberazioa; b) gehiengoa / pluraltasuna⁶⁶. Hauek konbinatuta, demokraziari buruzko kontzepzio ezberdinak azaleratzen dira⁶⁷. Lau taldetan bereiziko ditugu (ikus 1. taula):⁶⁷

Ordezkapenakoa. Ordezkaritza-sistema liberalaren prozedurazko eredura gehien hurbiltzen den kontzepzioa da. Demokraziak berezko balioa badu, eta ordezkarietza erakundeak hauteskunde-emaizten arabera zertzen badira, kasu horretan zentzuzkoa da ordezkarietza jardunarekiko konfiantza gizaratearen onerako dela sinestea⁶⁸. Kontzepzio demokratiko honek 2 ordezkapena eta pluraltasuna konbinatzen ditu.

Populista. Gizartea bi talde homogeneo eta antagonikotan zatitzen du: monista da (herriak interes eta balio komunak ditu), eta herria —gehiengoaren logika morala edo gure herriaren nahia— eliteari aurrez aurre kontrajartzen zaio⁶⁹. Metodo populista lehentasun ideologiko ezberdineko taldeek baliatu ohi dute, noski. Alde horretatik, ordezkapeneko eredu liberalaren krisia baieztatzen edota sustatzen du⁷⁰. Demokraziaren kontzepzio —populista ordezkapena eta gehiengoa batzen ditu,⁷¹ eta, sarri askotan, 3 erreferendumekin lotzen den kontzepzioa ere bada.

Deliberaziozkoa. Ikuspegi ezberdinak aurkeztu, arrazoitu eta eztabaidatzea bilatzen du, eta nola-halako adostasun bat erdiestea, kasu horretan erabakia eta arrazoiak modu irekian ezagutaraziz. Herritarren artean, foro txikietan eta ausazko gonbidapenen bidez esperimentatzean datza gehientsuenetan. Ordezkaritza politikoko herritarrei kontsulta egiteko bide bat ere bada, eta interes partikularren influentzia saihestea da helburu —nagusietakoa. Deliberazioa eta pluraltasuna konbinatzea bilatzen duen 4 kontzepzio demokratikoa da.

⁶⁴ Mudde, C. (2019): *The Far Right Today*. Londres: Polity Press.

⁶⁵ Dalton, R.J. (1999): *Political Support in Advanced Industrial Democracies*. Oxford: Oxford University Press; Norris, P. (1999): *Critical Citizens: Global Support for Democratic Government*. Oxford: Oxford University Press.

⁶⁶ Andeweg, R.B. eta Thomassen J.J.A. (2005): Modes of Political Representation. Toward a New Typology. *Legislative Studies Quarterly*, 30 (4): 507-528.

⁶⁷ Landwehr, C. & Steiner, N.D. (2017): Where democrats disagree: citizens' normative conceptions of democracy. Paper presented at the Anxieties-of-Democracy workshop «Democratic Participation – A Broken Promise?», March 13-17.

⁶⁸ Dovi, S. (2014): «Political Representation». The Stanford Encyclopedia of Philosophy (Spring 2014 Edition). Zalta, E.N. (arg.), URL: <http://plato.stanford.edu/archives/spr2014/entries/political-representation>.

⁶⁹ Heinisch, R. & Wegscheider, C. (2020): Disentangling How Populism and Radical Host Ideologies Shape Citizens' Conceptions of Democratic Decision-Making. *Politics and Governance*, 8 (3): 32-44.

⁷⁰ Foa, R.S. & Mounk, Y. (2016): The dangers of deconsolidation: The democratic disconnect. *Journal of Democracy*, 27 (3): 5-17; Foa, R. & Mounk, Y. (2017): The signs of deconsolidation. *Journal of Democracy*, 28 (1): 5-15.

Eszeptikoa. Deliberazioa eta gehiengoa konbinatzen dituen kontzepzioa da. Adibide argiena Hibbing eta Theiss-Morse-ren lanean formulatzen da⁷², *stealth democracy* (ezkutuko demokrazia) kontzeptuaren bidez. Horren arabera, herritarrek erabaki politikoak hartzetik urrun egon nahi dute, eta aukerakoa deritzote gobernu edota agendaren kontrola pertsona egokiei (teknokratak, enpresaburu arrakastatsiak, adituak, etab.) uzteari, gobernuaren jarduera eraginkorra bultzatu dezaten.

1. taula Kontzepzio berrien oinarri teorikoaren laburpena	Ordezkapena	Deliberazioa
Gehiengoa	Populista	Eszeptikoa
Pluraltasuna	Ordezkapenekoa	Deliberaziozkoa

Ikerketa gehientsuenek kontzepzio bakar batean zentratu eta bere aldeko jarrerak neurtzen edo ñabardurak eta inplikazioak aztertzen dituzte. Horren ondorioz, galdetegi berean kontzepzio ezberdin horiek galdera eta adierazle argi eta esanguratsuen bidez formulatzeko erreferentzia metodologiko sendorik ez dugu topatu. Edonola ere, kontzepzio berrien garrantzia eta esangura dela eta, aproposa deritzogu galdetegian demokraziaren ulermen ezberdin horiek eta horiei buruzko jarrerak planteatzeari; kontzepzio ezberdinekiko identifikazio orokor eta ireki bat neurtzeko, gutxien-gutxienik.

⁷¹ Andeweg, R.B. & Louwse, T. (2020): The institutional framework of representative democracy. Comparing the Populist-Majoritarian and the Liberal/Consensual Model, in Rohrschneider, R. & Thomassen, J. (arg.): *The Oxford Handbook of Political Representation in Liberal Democracies*, 95-112. Oxford: Oxford University Press.

⁷² Hibbing, J.R. & Theiss-Morse, E. (2002). *Stealth Democracy. Americans' Beliefs about How Government Should Work*. Cambridge: Cambridge University Press.



Galderak eta adierazleak

«Demokraziari buruzko ulermenak gurean» galdetegian zer galderari eta adierazleri ipini arreta, ez da ausazko erabakian oinarritu; galderek eta adierazleak badituzte balio zientifikoa eta gaurkotasun soziala. Bestetik, hainbat galderaren egokitasuna arrazoitzearekin batera, inkestadunaren arretari, interesari eta jakin-minari ere kontu egin beharra diogu, eta ez du zentzu handirik inkesta errebes, luze edo nekezegi bat diseinatzeak, beraz. Horrez gainera, gure kasuan, demokraziaren ulermenei buruzko galdetegiak diseinatzerakoan, aintzat hartu ditugu hiru irizpide osagarri: alde batetik, txosten honetako dokumentazioan oinarrituz, aintzat hartu ditugu baliozkotasun teoriko-kontzeptuala eta enpirikoa duten galderak eta adierazleak; bestetik, gurean soziometroek gehien planteaturiko galderak identifikatu eta baloratu ditugu (hainbat kasutan, galdera berak eta tankerakoak saihestea erabaki dugu, hartara beste galdera batzuk ere formulatu ahal izateko); hirugarrenik, galdetegian eztabaida berritzaileagoei loturiko galderak eta adierazleak ere planteatu ditugu.

Jarraian, labur-labur, eta, betiere, orain arteko azalpenetan oinarrituz, galdetegiak osatzen duten galderak multzokatu eta arrazoituko ditugu. Hiru atal nagusitan —edo hiru irizpide nagusiren arabera— bilduko ditugu galderak: kultura politikoari lotuen daudenak; metodo eta hautaketari buruzko galderak; eta demokraziaren propietate eta balioari erreferentzia egiten diotenak. Horiez gainera, bukatzeko, azken galdera bat arrazoituko dugu, galdetegiaren zentzuari eta helburuari lotuta⁷³.

1

Kultura politikoa

Lehen galdera multzoan jarrerazko dimentsioak bildu ditugu. Galderetako batek (G1.) erregimen politikoen artean bereizi eta demokraziaren babes-maila ezagutu nahi du. Legitimitate demokratikoa neurtzeko bi adierazle daude balioztatuak, eta bi horietako bat formulatu dugu, hain zuzen ere.

G1. Legitimitate demokratikoa. *Askotariko erregimen politikoak daude. Honako esaldi hauetatik zeinekin zaude ados?*

Beste bi galdera demokraziaren errendimenduari buruzko ebaluazioarekin daude lotuta. Demokraziaren efikazia politikoa zer-nola baloratzen den ezagutzeko asmoarekin, galdera batek oinarritzko lehentasunak zer neurritan betetzen diren galdetzen du (G2.). Beste galdera modu orokor eta zuzenean formulatu nahi izan dugu, eta demokraziaren funtzionamenduarekiko gogobetetzea ezagutu (G3.).

⁷³ Azalpena eta honen irakurketa errazte aldera, atal honetan galderak soilik formulatuko ditugu. Eranskinean gaineratu dugu galdetegi osoa.

G2. Gogobetetasuna. Zure ustez, kontzeptu hauek zenbateraino betetzen dira EAEn?

G3. Gogobetetasuna. Oro har, zenbateko gogobetetzea duzu EAeko demokraziaren funtzionamenduarekiko?

Hirugarren jarrerazko dimentsioak, azkenik, demokraziaren osagai ezberdinekiko lotura afektiboa neurtzea bilatzen du. Kasu honetan, bi irizpide baliatu ditugu: alde batetik, euskal soziometroak gehien galdetzen dituen gaiak (be-reziki, interes politiko subjektiboari loturikoak eta kompetentzia politiko per-sonalei buruzko pertzepzioarekin zerikusia dutenak) alde batera utzi ditugu; bestetik, sasoi politiko berriari loturiko kezka batzuei ipini diegu arreta. Alde horretatik, galdera bana formulatu dugu politikan eragiteko gaitasun politi-koari buruzko pertzepzioaz (G5.) eta autoritate politikoek herritarren kezkei arreta ipintzearen hautemate sozialari buruz (G6.).

G5. Atxikimendua. Zure ustez, zenbatean uzten dio sistema politikoak zu bezalako herritar bati politikan eragina izaten?

G6. Atxikimendua. Zure ustez, zenbat axola zaie politikariei zu bezalako herritarrek pentsatzen dutena?

Bi galdera horien osagarri modura, alde batetik, sistema politikoaren osagai afektiboei kontu egite aldera, konfiantza sozialarekin lotura duten hainbat item formulatu ditugu (G11.2., G12.); bestetik, alderdi-sisteman emaniko hainbat aldaketa direla eta, boto-emaileen lerrokatze berriak eta alderdi politikoek ugaritzeak demokraziaren kalitatea hobetzea ekarri duten galdetzea erabaki dugu (G17.2.).

G11. Portaerazko jarraibideak. Zure ustez, honako baieztapen hauetatik zein dira beti justifika daitezkeen portaera indibidualak?

G.12. Konfiantza. Pertsona batzuek abantaila bereziak dituzte...

G17.2. Atxikimendua. Esadazu ea ados zauden baieztapen hauekin: Demokrazia hobetu egin da EAEn, alderdi politikoek kopuruak gora egin duelako.

Azken galdera bat, ezohikoa, jarrerazko hiru dimentsioekin lotua; demokra-ziak zer sentimendu sorrarazten digun galdetzen du.

G14. Sentimendu orokorra. Zer sentimendu sortzen dizu demokrazia hitzak?

2

Hautaketa eta metodoaren auzia

Bigarren galdera multzoan erabakien prozedurari loturiko hainbat adierazle bildu ditugu. Lehenik eta behin, bi aukeren artean erabakitzea eskatu da (or-



dezkarriak boto bidez hautatzea ala beste antolaketa modu batzuk hobestea); jakina, arazoei konponbidea emate aldera, bi prozedurak izan litezke osagarriak, baina galderak, demokraziaren ulermena helburu izanda, leheneste-ari-keta bat egitera behartzen du (G4.).

G4. Hautaketa. *Zure ustez, zein da honako bi aukera hauetatik demokratikoagoa? Alegia, demokraziaz duzun ustetik gertuago dagoena?*

Ikuspuntu normatibo batetik begiratuta, auzi garrantzitsua da demokrazian herritarrek izan beharreko erantzukizuna (G7.). Hiru galdera bereizi ditugu (ordezkarien aukeraketa, gaien eztabaidan parte-hartzea, eta erabakietan esku-hartzea), demokrazian ardurak hartzeko intentsitate ezberdinen adierazle bezala.

G7. Erabakimena. *Demokrazia sinesgarria izan dadin, bertan bizi diren pertsonak...*

Ordezkaritzako demokrazietan aldiro azaleratu ohi diren eztabaida ugariaren artean, esanguratsuenetako bi hautatu ditugu: legebiltzarraren garrantzia eta adituen rola erabakiguneetan. Bi horietako lehenengoari dagokionez, jakin-ekoa da gobernu-kontseiluek aspaldian legebiltzarrari garrantzi estrategikoa eta legegilea murriztu egin diotela. Galera horrekin batera, beste kontuzko gaia erabakiak hartzerakoan ahots ezberdinei kasu egitean datza. Honi ipini diogu arreta (G8.): erabakiak gehiengoz hartzea bilatu behar den, ala beste ikuspegiei eta gutxiengoan daudenei entzun behar zaien; galderaren bidez jakin nahi da garrantzitsutzat jotzen diren akordioak bilatzea, besteei entzun eta ikuspegiak zuzentzea edo pluraltasun efektiboa.

G8. Akordioa. *Honako esaldi hauetatik, zeinekin zaude ados?*

Bigarren eztabaidak erabakiguneetan kontu egin beharreko irizpideei ipini die arreta; sakon-sakonean, demokraziaren eta epistokraziaren auzia dago. Kasu honetan, hiru galdera osagarri formulatu ditugu, izaera eta zentzu ezberdinekoak, bi helburu operatiborekin: bata, ikustea herritarrek zer neurritan diskriminatzen edo bereizten dituzten auzi bat eta berari loturiko galderak; bestea, demokraziaren eta teknokraziaren gai arantzatsua bere konplexutasunean formulatzea (G15., G16., G17.2.).

G15. Printzipioak eta eraginkortasuna. *Bi aukera horietatik, zein ezaugarri lehenetsiko zenuke gobernu batek izateko?*

G16. Balioak eta esperientzia. *Aukera horietatik, zein agintari mota lehenesten duzu gobernu baterako?*

G17.2. Irizpide zientifikoak. *Esadazu ea ados zauden baieztapen hauekin: Gobernuek irizpide zientifikoetan eta adituen irizpideetan oinarrituta hartu beharko lituzkete erabakiak.*



«Demokraziari buruzko ulermenak gurean» galdetegia osatzen duten galderek eta adierazleek badituzte balio zientifikoa eta gaurkotasun soziala. Multzokatuta arrazoituko ditugu hiru irizpide nagusiren arabera: kultura politikoa; hautaketa eta metodoaren auzia; eta demokraziaren propietateak eta balioak.

3

Demokraziaren propietateak eta balioak

Hirugarren galdera multzoan, demokraziaren propietate nagusi batzuei ipini diegu arreta. Galdera batek, zeinak ordezkartzako hauteskunde-demokraziaren, demokrazia liberalaren eta sozialaren propietateak jasotzen baititu, demokrazian ezinbestekotzat zer osagai jotzen diren formulatzen du (G9.).

G9. Propietateak. *Zure ustez, demokrazia egon dadin, honako esaldi hauetatik zein da nahitaezkoa?*

Horren osagarri modura, beste galdera batekin bilatu dugu demokraziaren berezko baliotzat eta balio instrumentaltzat hartu izan diren balioen zerrenda bat proposatzea, eta horietako bakoitzaren garrantzi-maila ezagutzea. Item gehien dituen galdera da, ordezkartzako tradizio demokratiko ezberdinen lehentasunak ere azaldu daitezen nahi izan dugulako.

G10. Propietateak eta balioak. *Zuretzat demokrazia zer den kontuan izanik, baloratu honako esaldi hauek.*

Beste galderetan, propietatearen eta balioen auzia arakatu nahi izan dugu, gaurkotasuneko eztabaida batzuen argitan. Edonola ere, demokraziaren ulermenak ezagutu nahi ditugun heinean, iritzi eta jarrerazko galderak eta adierazleak baliatu dira. Demokrazia elektoralak eta liberalak aniztasun berriei erantzuna emateko hainbat zailtasun dituztela eta, beste herrialde batzuetatik etorritakoei prestazio eta gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubidea aitortzeaz galdetu dugu (G13.); demokrazia konbentzionaletan aniztasun informatiboa berebiziko propietate gisa ulertu bada ere, azkenaldian albiste faltsuek kezka eragin dute, eta horien aurrean nola jokatu ere galdetu dugu (G17.3.); bukatzeko, eztabaidara ireki da zuzenbide-estatuko erakunde nagusiek demokrazietan zer garrantzi eta rol duten, eta horren inguruan —kasu honetan, arreta polizia- eta segurtasun-indarretan ipinita— galdetu dugu (G18.), betiere demokraziaren ulermen sozialak argitzeko xedeak motibatuta, gure galdetegiari dagokionez.



G13. Inklusioa. Noiz izan beharko lukete beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonak hemen bizi diren herritarrek jasotzen dituzten prestazio eta gizarte-zerbitzu berberak jasotzeko eskubidea?

G17.3. Albisteak. XXI. mendeko demokraziak albiste faltsuetatik babestu behar du, horrelako albisteak zaindu eta zentsuratu ditzakeen agentzia baten bidez.

G18. Polizia. Noiz eman behar dute polizia- eta segurtasun-indarrek beren jardueren berri jendaurrean?

Galdetegian, hiru galdera multzo horien osagarri bezala, gure abiapuntuak kezkari zuzen-zuzenean heltzen dion galdera bat egin dugu, modu gordinetan formulatua (G19.): *Demokrazia defendatzeko prest zeundeke, baldin eta demokrazia mehatxupean egongo balitz?*

**Andoni Eizagirre eta Asier Baztan
2023ko irailean.**

Eranskina

01 **G1** 34

02 **G2** 34

03 **G3** 35

04 **G4** 35

05 **G5** 35

06 **G6** 36

07 **G7** 36

08 **G8** 36

09 **G9** 37

10 **G10** 37

11 **G11** 38

12 **G12** 38

13 **G13** 39

14 **G14** 39


15 **G15** 39

16 **G16** 40

17 **G17** 40

18 **G18** 41

19 **G19** 41



G1. Askotariko erregimen politikoak daude. Ondorengo esaldietatik zeinekin zaude ados? (%)

	Erantzuna	%
1	Demokrazia beste edozein gobernu mota baino hobea da	88,4
2	Egoera batzuetan, erregimen autoritarioa hobea izan daiteke demokratikoa baino	2,8
3	Ni bezalako jendeari erregimen demokratikoa edo ez-demokratikoa izatea bost axola zaio	5,4
4	ED (Ez daki)	2,9
5	EE (Ez du erantzuten)	0,5

1. taula

G1 - Erantzunak

— ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

G2. Kontzeptu hauek zure ustez EAEn zenbateraino betetzen dira? (%)

	Kontzeptuak	Asko	Dezente	Zerbait	Ezer ez	ED/EE
1	Askatasuna	22,0	53,6	18,5	2,2	3,7
2	Elkartasuna	15,7	50,9	27,2	2,5	3,7
3	Justizia	5,6	37,4	45,7	7,6	3,7
4	Berdintasuna	8,1	42,8	40,8	4,6	3,7
5	Gizarte-ongizatea	10,4	55,7	28,0	2,2	3,7
6	Oparotasuna	7,4	53,2	32,2	3,5	3,7
7	Etorkizuneko itxaropena	7,1	44,9	39,7	4,6	3,7
8	Enplegua	5,8	42,5	44,7	3,3	3,7
9	Segurtasuna	9,1	51,9	31,2	4,1	3,7

2. taula

G2 - Erantzunak

— ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

G3. Oro har, zenbateko gogobetetzea duzu EAEko demokraziaren funtzionamenduarekiko? (%)

3. taula

G3 - Erantzunak

—ITURRIA

ArantzuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzuLab.

Erantzuna		%
1	Oso pozik nago	5,9
2	Dezente pozik	56,9
3	Ez nago pozik	32,1
4	Ez nago batere pozik	5,1

G4. Zein da, zure ustez, ondorengo bi aukeretatik demokratikoagoa? Alegia, demokraziaren zure ustetik gertuago dagoena. (%)

4. taula

G4 - Erantzunak

—ITURRIA

ArantzuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzuLab.

Erantzuna		%
1	Arazoak konpontzeko gure izenean jarduten duten ordezkariak BOTO BIDEZ hautatu	58,6
2	Arazoak konpontzeko BESTE ANTOLAKETA modu batzuk. Hala nola, auto-antolaketa, herritarren zozketa edota boto asanblearioa	34,4
3	ED	6,0
4	EE	1,0

G5. Zure ustez, zenbatean uzten dio sistema politikoak zu bezalako herritarrei politikan eragina izaten? (%)

5. taula

G5 - Erantzunak

—ITURRIA

ArantzuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzuLab.

Erantzuna		%
1	Izugarri	0,9
2	Asko	5,2
3	Zerbait	29,8
4	Oso gutxi	39,5
5	Ezer ez	24,6



G6. Askotariko erregimen politikoak daude. Ondorengo esaldietatik zeinekin zaude ados? (%)

	Erantzuna	%
1	Demokrazia beste edozein gobernu mota baino hobea da	88,4
2	Egoera batzuetan, erregimen autoritarioa hobea izan daiteke demokratikoa baino	2,8
3	Ni bezalako jendeari erregimen demokratikoa edo ez-demokratikoa izatea bost axola zaio	5,4
4	ED (Ez daki)	2,9
5	EE (Ez du erantzuten)	0,5

6. taula

G6 - Erantzunak

— ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

G7. Demokrazia sinesgarria izan dadin, bertan bizi diren pertsonek... (%)

	Erantzuna	Bai	Ez	ED/EE
1	Ordezkariei aukeraketan parte hartzea ezinbestekoa da	91,9	2,8	5,3
2	Pertsonalki parte hartu behar dute, betiere zuzeneko eragina badute gaian	78,5	16,1	5,4
3	Gai horiei buruzko erabakiak hartu behar dituzte, izan banaka, izan taldean	81,5	12,9	5,6

7. taula

G7 - Erantzunak

— ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

G8. Ondorengo esaldietatik zeinekin zaude ados? (%)

	Erantzuna	%
1	GEHIENGOAREN indarren bidez eraikitzen den demokraziarekin identifikatuago sentitzen naiz	12,2
2	INDAR NAGUSIEN eta GUTXITUEN arteko akordioaren bidez eraikitzen denean demokraziarekin identifikatuago sentitzen naiz	81
3	ED-EE	6,8

8. taula

G8 - Erantzunak

— ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

G9. Demokrazia egon dadin, zure ustez, ondorengo esaldietatik zein da nahitaezkoa? (%)

9. taula

G9 - Erantzunak

—ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

Erantzuna		%
1	Ordezkariek hautatzeko askotariko alderdiei botoa emateko aukera izatea	9,8
2	Herritar guztiak diru-sarrera duina izatea	29,9
3	Norberak pentsatzen duena beldurrik gabe esateko eskubidea izatea	16,6
4	Gutxiengoekiko errespetua izatea	6
5	Pertsona guztiak berdin hartzen dituen sistema judiziala izatea	32,8
6	Beste bat	1,8
7	ED	2,4
8	EE	0,7

G10. Zuretzat demokrazia zer den kontuan izanik, baloratu ondorengo esaldiak “0 batere garrantzirik ez duena eta 10 ezinbestekoa”. (batezbestekoa)

10. taula

G10 - Erantzunak

—ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

Erantzuna		Batezbestekoa	ED/EE (%)
1	Herria ordezkatzeko tresna gisa alderdi politikoak egotea	7,75	1,3
2	Eskubideak eta askatasunak bermatzea	9,49	0,6
3	Herritarren ongizate ekonomikoa bermatzea	9,35	0,8
4	Gobernua eraginkortasunez kontrolatzeko mekanismoak egotea	9,29	1,2
5	Komunikabide independenteak egotea	9,03	1,8
6	Arduradun politikoak gizartetik hurbil egotea	8,97	1,1
7	Jokabide ustelik ez izatea	9,71	0,8
8	Hauteskundeak izatea gure ordezkariak aukeratzeko formula	8,33	1,5
9	Edozein pertsonak hauteskundeetan aurkezteko aukera berdinak izatea	8,45	1,5
10	Hauteskundeetara aurkezten diren alderdien artean gobernuan txandakatzeko aukera egotea	7,95	5,9
11	Kolektibo minoritario batzuk, hala nola atzerritar jatorriko pertsonak, gobernura iritsi ahal izatea	8,18	2,0
12	Justizia denontzat berdina izatea	9,76	1,2
13	Erabaki politikoak herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetan erabakitzea	9,11	1,7



G11. Zure ustez, ondorengo baieztapenetatik zein dira beti justifikatu daitezkeen portaera indibidualak? Erantzunak Otik 10era bitartekoak dira: 0 = ezin da justifikatu, eta 10 = beti justifikagarria da (batezbestekoa)

	Erantzuna	Batezbestekoa	ED/EE (%)
1	Gizarte laguntzak erreklamatzeko horretarako baldintzak ez bete arren	2,89	1,9
2	Garraio publikoan txartela ez ordaindu	2,22	1,2
3	Aukera izanez gero zergetan tranpa egin	0,73	0,5
4	Eroskeria bat onartu bere eginkizunak betetzean	0,29	0,5
5	Gezurra esan norberaren intereserako	1,13	0,9
6	Zaborra behar bezala ez birziklatu	2,2	1,0
7	Gehiegizko abiadura eremu urbanizatuetan	1,55	0,6

11. taula

G11 - Erantzunak

— ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

G12. Mesedez, erantzun hurrengo 3 galderei Otik 10erako eskalan, 0 erabateko ezadostasuna, eta 10 erabat ados izanik (%)

	Erantzuna	Batezbestekoa	ED/EE (%)
1	Pertsona batzuek abantaila bereziak dituzte nire eskualdeko hezkuntza-sistema publikoan	4,72	20,9
2	Pertsona batzuek abantaila bereziak dituzte nire eskualdeko osasun-sistema publikoan	4,44	18,3
3	Zenbait pertsonak abantaila bereziak lortzen dituzte administrazioen aldetik nire eskualdean jarduera ekonomikoak garatzeko baimenak lortzerakoan	4,81	20,2

12. taula

G12 - Erantzunak

— ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

G13. Beste herrialde batzuetatik EAera/Espainiara bizitzera datozen pertsonetaz hitz egingo da orain. Noiz izan beharko lukete pertsona horiek hemen bizi diren herritarrek jasotzen dituzten prestazio eta gizarte-zerbitzu berberak jasotzeko eskubidea? Zein da ondorengo aukeretatik zure iritziarekin bat datorrena (%)

13. taula

G13 - Erantzunak

—ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

Erantzuna		%
1	Iritsi bezain laster	24,9
2	Espainian/EAEan urtebetez bizi izan ondoren, lan egin edo ez lan egin	10,3
3	Gutxienez urtebetez lanean eta zergak ordaintzen aritu ondoren bakarrik	45,6
4	Espainiako nazionalitatea lortu ondoren	10,4
5	Inola ere ez lituzkete eskubide berberak izan behar	1
6	ED	7,8

G14. Zer sentimendu sortzen dizu demokrazia hitzak? (%)

14. taula

G14 - Erantzunak

—ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

Erantzuna		%
1	Mesfidantza	11,2
2	Haserrea	6,8
3	Axolagabekeria	19,1
4	Konpromisoa	51,8
5	Zirrara	6
6	ED	5,1

G15. Bi aukera hauetatik, zein ezaugarri lehenetsiko zenuke gobernu batek izatea? (%)

15. taula

G15 - Erantzunak

—ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

Erantzuna		(%)
1	Printzipioak eta balioak izatea, nahiz eta oso eraginkorra ez izan	73,7
2	Eraginkorra izatea, nahiz eta printzipiorik eta baliorik ez izan	20,8
3	ED	5,5



G16. Ondorengo aukeretatik, zein agintari mota lehenesten duzu gobernu baterako? (%)

Erantzuna		(%)
1	Balioak eta ideiak ardatz hartuta gizartea hobetu nahi duena	54,9
2	Esperientzia duen agintaria eta lan alorrean bere esperientzia lantzeko gai dena	39,7
3	ED	5,4

16. taula

G16 - Erantzunak

— ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

G17. Esadazu ea ados zauden baieztapen hauekin (%)

Erantzuna		Bai	Ez	ED
1	Gobernuek irizpide zientifikoetan eta adituen irizpideetan oinarrituta hartu beharko lituzkete erabakiak	82,1	12,2	5,7
2	Demokrazia hobetu egin da EAEan, alderdi politikoen kopuruak gora egin duelako	43,4	50,0	6,6
3	XXI. mendeko demokraziak albiste faltsuetatik babestu behar du. Horrelako albisteak zaindu eta zentsuratu ditzakeen agentzia batekin	68,3	25,9	5,8

17. taula

G17 - Erantzunak

— ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

G18. Noiz eman behar dute polizia- eta segurtasun-indarrek beren jardueren berri jendaurrean? (%)

18. taula

G18 - Erantzunak

—ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

Erantzuna		Beti	Egoeraren arabera	Inoiz ez	ED
1	Egoera zehatzetan. Ordena publikoa asaldatutako uneetan (adibidez, futbol-partidak, herriko festak, etab.)	64,2	28,1	2,1	5,6
2	Gatazka sozialak eta/edo krisi instituzionak dauden egoeretan (adibidez, greba orokorrak, erreferenduma Katalunian)	67,3	24,4	2,7	5,6
3	Ordena konstituzionala mehatxatutako uneetan (adibidez, estatu-kolpea)	74,9	16,8	2,8	5,5

G19. Demokrazia defendatzeko prest zeundeke, baldin eta demokrazia mehatxupearan egongo balitz (%)

19. taula

G19 - Erantzunak

—ITURRIA

ArantzazuLab (2023):
Demokraziari buruzko
ulermenak gurean.
Oñati: ArantzazuLab.

Erantzuna		%
1	Bai	74,7
2	Ez	11,4
3	ED	11,6
4	EE	2,3

